

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 11

13. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-25/CCOI-00025. “Iruñeko Udalaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/CCOI-00025. “Iruñeko Udalaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Iruñeko Udalaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

LABURPENA/ IRUÑEKO UDALAREN KONTU OROKORRA, 2024



- **Aldeko iritzia** finantza-auditoretzan eta legezkotasunean; azken hori, kontratazio publikoagatiko bi salbuespenekin.
- **Funtzionamendu-gastuak proportzio handiagoan** hazten dira diru-sarrera arruntak baino.

Gomendioak:

- Informatikaren arduradun bat izendatzea.
- Kontratazio-beharrizanak hobeto planifikatzea.
- Barne-kontrola indartzea.

Kopuru behinenak:

262
milioi

Diru-sarreretatik datoz; horietatik, 129 milioi transferentzia arruntak dira; 55, zuzeneko zergak; 29, tasak eta prezio publikoak; eta 11, zeharkako zergak.

296
milioi

Gastuenak dira; horietatik, 133 milioi langileriakoak dira; 89, ondasun eta zerbitzuetakoak; eta 45, inbertsioetakoak.

32
milioi

Zor bizikoak, iaz baino % 20 gutxiago, **26 milioiko diruzaintza-gerakinarekin** eta **9 milioiko aurrezpen gordinarekin**.

1.641
toki

Horietatik, funtzionario dira 1.282; kontratupeko langile, 329; eta behin-behineko langile, 30

AURKIBIDEA**ORRIALDEA**

I. SARRERA.....	5
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	5
III. IRITZIA.....	6
III.1 Fiskalizazio finantzarioko iritzia	6
III.2 Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia.....	6
IV. IRITZIAREN OINARRIA	7
IV.1 Legezketasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria	7
V. AUDITORETZAREN FUNTSEZKO AUZIAK.....	7
VI. ENFASI-PARAGRAFOA	8
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	8
VIII. IRUÑEKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	9
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	9
X. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	10
1. GEHIGARRIA. UDALAREN 2024KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	11
2. GEHIGARRIA. IRUÑEKO UDALA	14
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	18
4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA.....	19
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK.....	21
5.1 Aurrekontu orokorra eta finantzen egoera bateratua	21
5.2 Iruñeko Udala	24
ERANSKINA: "NEXT GENERATION EU" FUNTSEKIN 2021-2024KO ALDIAN FINANTZATUTAKO GASTUAK.....	48
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK	49
KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA.....	51

I. SARRERA

Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2025eko ekitaldirako fiskalizazio-programarekin bat, Iruñeko Udalaren (aurrerantzean "udala" deituaren) 2024ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa egitearekin uztartuta.

Landa-lana 2025eko ekainetik urrira bitartean egin zuen lantalde batek, zeina auditoretzako lau teknikarik, sistema informatikoetako goi-mailako teknikari batek, sistema informatikoetako erdi-mailako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboek laguntza eman zuten.

Udaleko eta haren menpeko erakundeetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimoak ager ez daitezen. Datuek zenbateko zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

Lan honen emaitzak jakinarazi egin zitzaizkion Iruñeko Udaleko alkateari, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Epea amaituta, aholkularitza juridikoak, zeina Iruñeko Udaleko alkatetzaren ardurapean baitago, alegazioak aurkeztu ditu. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Kontuen Ganbera honen erantzunarekin batera; horrenbestez, txostena behin betiko gisa ematen da.

Eskerrak ematen dizkiegu Iruñeko Udaleko eta haren ardurapeko erakundeetako langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan honen xedea da gai hauei buruzko gure iritzia ematea:

- Ea Udalaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duen 2024ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, jarraiturik informazio finantzarioaren araudi indardunari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.

- Ea 2024ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin, alderdi muntadun guztietan.

Aurreko helburuez gain, informazioaren teknologien (aurrerantzean, IT) gobernantzari buruzko auditoretza egin dugu lehenbiziko aldiz, honako konklusio hauetara iristearren:

- Ea ITen gobernantza-jarduna entitatearen izaerarekin eta konplexutasunarekin bat ote daterren.

- Ea zuzendaritzaren antolamendu-egitura egokia ote den ITEi eta esleitutako baliabideei dagokienez.

Fiskalizazioaren norainokoa Udalaren kontu orokorra da, zeinaren edukia, 272/1998 Foru Dekretuan ezarria, honako hau baita:

a) Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen kontu orokorra.

- Aurrekontu-likidazioaren espedientea.

- Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea: egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.

- Eranskinak: diruzaintzako egoera, etorkizuneko gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera, baloreen egoera eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatzeko zerbitzuen kostuen oroitidazkia.

b) Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontuak: egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.

c) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria, partaidetza handiena toki-entitatearena duten merkataritza-sozietateen kontuak eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Legezkotasunaren betetzeari dagokionez, norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 5. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Fiskalizazioan aztertutako denbora-tartea 2024ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz beharrezko egiaztapenak egin ditugu, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Kanpoko profesionalek erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta Gaiarre Antzokia udal-fundazioan egindako kontu-auditoretzako eta legezkotasuneko txostenak aztertu ditugu.

Kontuan hartu dugu "Iruñeko Udalaren kontratu publikoen gardentasuna eta publikotasuna (2023-2024)" izeneko txostena, Ganbera honek 2025eko ekainean jaulki zuena.

Gure lanaren norainokoarentzat eragozpen izan da udalaren informatika-zerbitzuen gaineko arduraren duen langilerik eza, ezen horren ondorioz ezinezkoa izan zaigu udaleko ITen gobernantza-auditoretza egitea.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Iruñeko Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du, zeinak barne hartzen baititu, batez ere, 2024ko abenduaren 31ko egoera-balantzea, irabazien eta galeren kontua, aurrekontu-likidazioaren espedientea eta oroitidazkia.

Orobat, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa ere egin du.

III.1 FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2024ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute udalaren eta haren menpeko erakundearen 2024ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontu-eragiketaz ere, betiere informazio finantzario publikoa dela-eta aplikatzeko den araudiari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraikiz.

III.2 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

Gure ustez, gure txostenaren "Legezkotasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria" atalean deskribatu ditugun gaien eraginengatik ez bada, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Iruñeko Udalaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeko zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioei legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta ISSAI-ES 400 arauetan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, kontu orokorraren eta legezkotasun-betetzearen fiskalizazioari dagokienez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorraren fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure aldeko fiskalizazio finantzarioari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia salbuespekin adierazteko.

IV.1 LEGEZKOTASUN-BETETZEARI BURUZKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

- Kontratuen gehieneko indarraldia gainditzeagatik kontratu-estaldurarik gabe emandako zerbitzuen-gatik 2024ko ekitaldian aitortutako gastuak 16,68 milioikoak dira udalean, 32.182 euro Haur Eskolak erakunde autonomoan eta 27.162 euro Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoan.
- Munta txikiko kontratu gisa izan dira oker tramitatuak hornidurak, segidako zerbitzu-emateak eta zenbait obra, zeinek 2024an 2,6 milioiko gastua eragin baitute udalean, 337.092 eurokoa Haur Eskolak erakunde autonomoan eta 8.170 eurokoa Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoan.

V. AUDITORETZAREN FUNTSEZKO AUZIAK

Auditoretzaren funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak egungo epealdiko kontu orokorrari buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu kontu orokorra osoki aintzat hartuta egin dugun auditoretzaren testuinguruan eta kontu horri buruzko gure iritzia lantzean, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Legezkotasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inongo auziren berri ematen.

VI. ENFASI-PARAGRAFOA

Honako gai hauetaz ohartarazi nahi dugu:

- 2022tik 2024erako epealdian aurrezki gordin eta garbi bateratuak behera egin izana, funtzionamendu-gastuak proportzio handiagoan areagotu direlako diru-sarrera arruntak baino, honako taula hone-tan ikusten ahal den bezala:

Adierazlea	2022	2023	2024	Aldea (%a)	
				2024/2023	2024/2022
Diru-sarrera arruntak	229.736.244	237.909.897	245.838.330	3	7
Funtzionamendu-gastuak	208.035.803	221.104.287	236.890.083	7	14
Aurrezki gordin	21.700.441	16.805.610	8.948.247	-47	-59
Finantza-zama	8.044.636	8.589.115	8.016.553	-7	-0,3
Aurrezki garbia	13.655.805	8.216.495	931.694	-89	-93

Kontu-hartzaileak kontu orokorrari buruzko txostenean adierazten duen bezala, finantza-osasun onari eusteko, komeni da funtzionamendu-gastuak ez daitezela proportzio handiagoan haz diru-sarrera arruntak baino, eta horretarako beharrezkoa da udalaren gastuak murrizteko eta/edo hark baliabide arruntak sortzeko duen gaitasuna areagotzeko moduko neurriak hartzea.

Aurrezki garbiaren beherakadak esan nahi du inbertsioak gehienbat kapitaleko diru-sarrerekin finantzatzea, eta horrek zailago egiten du udalak egungo inbertsio-bolumenari zorpetzerik gabe eutsi ahal izatea.

Gai horiei dagokienez, gure iritzia ez da aldatu.

VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

2021 eta 2024 artean udalari emandako "Next Generation EU" funtsak 43,72 milioikoak izan dira; 2024ko abenduaren 31n horietatik 31,54 milioi zeuzkan kobratuta.

Funts horiekin finantzaturiko gastu aitortuak 39,84 milioikoak izan dira. Ehuneko 91 kapital-gastuak dira, eta gainerako ehuneko 9a, gastu arruntak.

Txosten honen eranskinean zehazturik daude "Next Generation EU" funtsekin finantzaturiko proiektuak. Duten zenbatekoagatik, honako hauek bereizten ditugu haien artetik:

	Emate-urtea	Emandako zen-batekoa	Eskubide aitor-tuak	Betebehar ai-tortuak 2021-2024
Emisio gutxiko eremua	2021	6.330.426	6.330.426	8.930.293
Jasangarritasun Turistikoko Plana	2021	5.492.500	5.492.500	2.315.416
Bidegorriak	2023	4.844.500	4.844.500	4.695.618
Mugikortasuna	2023	2.005.007	2.005.007	2.076.821
Azpiegitura ziklistak	2023	1.952.111	1.952.111	3.108.115
Merkataritza aldeak	2021	1.909.151	1.909.151	1.869.806
Merkataritza aldeak laguntzea	2022	1.029.120	1.029.120	1.257.457
Haur eskolak: Donibane, Lezkairu Mendebalde	2023	2.310.000	1.530.000	6.790.167

VIII. IRUÑEKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Udaleko Ogasun Zuzendaritzaren ardura da kontu orokorra osatzea, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta ekonomia- eta aurrekontu-emaitzen irudi fidela emateko moduan, erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorriz. Era berean, bermatu behar du jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta kontu horretan jasotako informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko azaroaren 27an onetsi zuen kontu orokorra, zuzenbidez ezarritako epetik kanpo.

Era berean, udalaren ardura da barne-kontrolako sistemak ezartzea, beharrezkotzat jotzen dituenak kontu orokorra akats edo iruzurraren ondoriozko oker materialik gabe prestatu ahal izateko eta egindako jarduera zuzenbide-urraketarik gabekoa dela bermatzeko.

IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: kontu orokorraren osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legezkotasun-urraketen ondoriozkoak ere, eta materializat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpoko kontrol-organoei buruzko araudiari jarraitzen dion fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionalako jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan. Halaber:

- Kontu orokorrean iruzur edo errorearen ondoriozko oker materialak egoteko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Iruzurrak eragindako oker materiala ez detektatzeko arriskua handiagoa da akats baten ondoriozko oker materialerako batekin alderatuta; izan ere, iruzurrak barne har dezake kolusioa, faltsutzea, nahita egindako omisioak, okerrak direla jakinik egindako adierazpenak, edo barne-kontrola saihestea.

- Barne-kontrolari buruzko ezagutza, fiskalizaziorako adierazgarria, lortzen dugu, xede hartuta ingurubarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematea.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organismoak emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, jakitera emandako informazioa barne, eta ea transakzioen eta haien azpiko egitateen irudi leiala erakustea lortzen den.

Entitatearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoretza-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

X. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

2024ko ekitaldiaren fiskalizaziotik eratorritako *gomendio* hauek azpimarratzen ditugu:

- *Informatikaren arduradun bat izendatzea.*

• *Udal-alor guztietako hornidura-, zerbitzu- eta obra-kontratazioko beharrianak planifikatzea eta prestazio jakin batzuk batera lizitatzearen efizientzia baloratzea.*

Indarrean jarraitzen dute aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenetan egindako *gomendio* hauek, eta iruditzen zaigu lehentasunezkoa dela horiek betetzea:

• *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Horrela, besteak beste:*

- *Erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, eta kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Nominaren aurretiazko fiskalizazioa egitea, bai eta langileria-gastuen ordainketaren kontu-hartze materiala ere.*

• *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gaitzitzeko.*

• *Kontratu-lizitazioko prozedura egokia izapidetzea munta txikiko kontratuetarako ezarrita dauden mugak gaitzitzen dituen balio zenbatetsia duten hornidura, zerbitzu eta obrentzat.*

Era berean, txosten honen 5. gehigarrian jaso ditugu 2024ko ekitaldiko finantza- eta legezkotasun-fiskalizazioaren eta lehenagoko fiskalizazioen ohar eta aurkikuntzei buruzko beste gomendio batzuk.

Txosten hau jaulkitzen da, indarreko araudiak ezartzen dituen izapideak bete ondotik, lan honen arduradun Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

Iruñean, 2025eko abenduaren 4an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. UDALAREN 2024KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA¹**2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua**

(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin be- tiko kredi- tua	ABG	Ordainke- tak	Be- teta- koa (%)	Or- dain- ketak (%)
1. Langileria-gastuak	124.796.411	8.905.278	133.701.689	133.098.206	132.841.337	100	100
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	91.665.508	3.064.935	94.730.443	89.451.195	69.822.475	94	78
3. Gastu finantzarioak	951.000	0	951.000	799.237	795.808	84	100
4. Transfer. arruntak	14.255.440	576.946	14.832.386	14.340.682	13.070.713	97	91
5. Kontingentzia-funtsa	322	0	322	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	28.932.244	31.443.611	60.375.856	45.087.195	29.167.106	75	65
7. Kapital-transfer.	3.043.597	5.230.259	8.273.856	6.161.608	5.266.194	74	85
8. Finantza-aktiboak	376.000	0	376.000	221.590	209.590	59	95
9. Finantza-pasiboak	7.223.000	0	7.223.000	7.217.316	7.217.316	100	100
Guztira	271.243.522	49.221.029	320.464.552	296.377.029	258.390.539	92	87

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurrei- kuspina	Aldak.	Behin be- tiko aurrei- kuspina	AEG	Kobrantzak	% Bete- tzea	% Ko- bran- tzak
1. Zuzeneko zergak	58.518.000	0	58.518.000	54.592.177	51.917.782	93	95
2. Zeharkako zergak	9.500.000	0	9.500.000	10.792.982	8.692.930	114	81
3. Tasak, prezio publi- koak eta bestelako diru-sarrerak	41.450.138	0	41.450.138	45.848.139	36.275.187	111	79
4. Transfer. arruntak	124.337.860	0	124.337.860	129.048.968	128.984.765	104	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri- aprobetxamenduak	4.785.100	0	4.785.100	5.556.064	4.966.707	116	89
6. Inbertsio errealean besterentzea	15.717.473	0	15.717.473	10.915.981	10.731.142	69	98
7. Kapital-transfer.	8.567.452	990.794	9.558.246	5.101.790	5.092.868	53	100
8. Finantza-aktiboak	376.000	48.230.236	48.606.236	239.284	77.428	0,5	32
9. Finantza-pasiboak	7.991.500	0	7.991.500	0	0	0	0
Guztira	271.243.523	49.221.030	320.464.553	262.095.385	246.738.809	82	94

¹ Kontu orokorraren eduki osoa hemen kontsulta daiteke:<https://www.pamplona.es/ayuntamiento/presupuestos-municipales>

2024ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza bateratua
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2023	2024
Aitortutako eskubide garbiak	288.826.913	262.095.385
Aitortutako betebeharrak garbiak	-261.774.816	-296.377.030
Aurrekontu-emaiza	27.052.097	-34.281.645
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-26.396.847	-5.228.719
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	9.491.773	14.171.303
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	22.552.211	29.989.105
Aurrekontu-emaiza doituak	32.699.234	4.650.044

2024ko ekitaldiko diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2023	2024	Aldea (%a)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	27.912.881	18.897.591	-32
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	21.458.294	15.449.437	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	25.678.299	22.569.689	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.041.899	172.493	
(+) Ordainketen itzulketak	812	771	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-20.152.282	-19.099.172	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-114.141	-195.627	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-44.604.804	-53.191.496	19
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-31.367.971	-37.986.490	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-2.243.891	-1.882.887	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-10.807.023	-12.303.364	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	-257.819	-1.029.362	
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	71.900	10.607	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	99.534.556	76.823.944	-23
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	23.208.719	23.252.662	
Diruzaintzako gerakina, guztira	106.051.352	65.782.701	-38
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	23.943.914	16.327.644	-32
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	41.018.165	23.000.677	-44
Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	41.089.273	26.454.381	-36

2024ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua

(Udala, erakunde autonomoak eta Comirufia SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU udal-sozietateak)

Deskribapena			2023	2024	Deskribapena			2023	2024
A	Ibilgetua		1.320.254.559	1.274.147.155	A	Funts propioak		1.398.339.043	1.335.213.651
1	Ibilgetu materiala		577.175.901	588.488.472	1	Ondarea eta erre- serbak		717.998.277	954.710.503
2	Ibilgetu ez-materiala		22.948.569	23.267.633	2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (ete- kina)		236.607.373	0
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta onda- sunak		711.071.457	653.350.112	3	Kapital-dirulagun- tzak		443.733.393	380.503.148
4	Herri-ondasunak		0	0	B	Arriskueterako eta gastuetarako hor- nidurak		0	0
5	Ibilgetu finantzarioa		9.058.632	9.040.938	4	Hornidurak		0	0
B	Zenbait ekitalditan ba- natu beharreko gastuak		0	0	C	Epe luzeko har- tzekodunak		37.830.443	31.123.232
6	Kitatu beharreko gas- tuak		0	0	4	Jesapenak, maile- guak eta jasotako fi- dantzak eta gordai- luak		37.830.443	31.123.232
C	Zirkulatzaila		163.176.297	147.106.429	D	Epe laburreko hartzekodunak		47.261.369	54.916.701
7	Izakinak		10.948.190	11.174.700	5	Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzeko- dunak		47.151.600	54.738.687
8	Zordunak		48.406.361	38.685.984	6	Aplikatzeko dau- den partidak eta aldizkatzearen on- doriozko doitzeak		109.769	178.014
9	Kontu finantzarioak		103.738.944	82.287.053					
10	Finantzaketa-egoera ira- gankorra, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak, apli- katzeko daudenak		82.802	36.266					
11	Aplikatzeko dagoen emai- tza (ekitaldiko galera)		0	14.922.426					
	Aktiboa, guztira		1.483.430.856	1.421.253.584		Pasiboa, guz- tira		1.483.430.856	1.421.253.584

2. GEHIGARRIA. IRUÑEKO UDALA

Iruña, Nafarroako hiriburua, 2024ko urtarrilaren 1ean 208.243 biztanle zituen udalerria da (109.685 emakume eta 98.558 gizon). Hedaduraz 25,1 km² dauzka.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea beharrezko udal-organoen antolaketari eta funtzionamenduari eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioari aplikatzearen ondorioetarako, Iruña biztanle askoko udalerritzat hartzen da.

Udal-antolamendua besteak beste honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak.

Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2024ko urtarrilaren 15eko Dekretuaren bidez onetsia, honako unitate organiko hauen bitartezkoa da:

- a) Alkatetza, udal-gerentzia eta aholkularitza juridikoa, zeinak zuzenean alkatearen mende baitaude.
- b) Hamar gobernu-alor, zinegotzi ordezkarien mende.

Udalak zerbitzu publikoak kudeatzeko erakunde hauek sortu ditu:

- Erakunde autonomoak:
 - Udalaren haur eskolak: haur eskolen zerbitzuaren kudeaketa.
 - Udalaren Hirigintzako Gerentzia: hirigintza-kudeaketa Iruñeko udal-mugarrean.

- Merkataritza-sozietateak:


Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetza (%)	Objektu soziala
Comiruna SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA	100	Hirigune historikoko hirigintza
SAD Pamplona SLU* - EELZ	100	Etkez etxeko laguntza zerbitzua
Animsa SA	77,69	Udal-informatika
Mercairuna SA	51	Handizkako merkatuak

*Likidazio-bidean dagoen sozietatea.

- Gayerre Antzokia Fundazioa, antzoki hori kudeatzeko eta administratzeko.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen antolaketa-egitura honako grafiko honetan ikusten da:



Hona hemen udalaren eta haren mendeko erakundeen datu nagusiak, ekonomikoak eta langileriari buruzkoak, 2024ko ekitaldiaren itxierakoak:

- Administrazio-sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako esku-bideak	Aitortutako bete-beharrak	Langileak, 2024-12-31n*
Udala	261.463.883	291.724.348	1.444
Haur Eskolak erakunde autonomoa	14.641.790	14.275.304	325
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	4.807.565	9.195.231	22
- Bateratzearen doikuntzak	-18.817.852	-18.817.852	
Bateratua, guztira	262.095.385	296.377.030	

*Oroitidazkiko datuak.

2024an, udalak transferentzia arruntei dagozkien 12,83 milioi helarazi zizkien erakunde autonomoi, eta kapital-transferentziei dagozkien 5,35 milioi.

- Merkataritza-sozietateak:

Sozietate publikoa	Negozio-zifra garbia	Ekitaldiaren emaitza	Epe luzeko zor-petzea	Ondare garbia	Batez besteko pertsona kop. 2024
Animsa	8.669.078*	149.888	13.523	1.872.886	112
Comiruña, SA	422.777	-6.596	101.661	2.663.813	6,8
Mercairuña SA	1.178.064	162.099	101.203	9.414.709	9,6
Iruña Biziberritzen SAU	74.128	-299.530	2.317.650	19.738.557	5,6
SAD Pamplona SLU*	0	12.875	0	15.942	0

*4,81 milioi dagozkie Iruñeko Udaleko zerbitzu-prestazioei.

2024an, udalak honako zenbateko hauek helarazi zizkien udal-sozietateei:

Sozietatea	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Iruña Biziberritzen SAU	723.591	3.271.429
Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU	800.500	0
Comiruña	0	100.000

- Gayarre Antzokia fundazioa

Fundazioa	Jardueraren diru-sarrerak	Ekitaldiaren emaitza	Epe luzeko zor-petzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla, 2024
Gayarre Antzokia	1.816.274	-43.004	0	1.642.072	14

2024an, udalak Gayarre Antzokia Fundazioari 960.000 euroko ekarpena egin zion jarduerak finantzatzeko, eta 821.242 eurokoa, ikus-entzunezko ekipamendua eta argiztapeneko berritzeko inbertsioetarako.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe-presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamendukoak, hiri-garraioak (autobus- eta taxi-zerbitzuak) eta Ezkaba eskualde-parkea kudeatzekoak. Eskualdeko hiri-garraioaren gastuak 3,84 milioi egin zituen 2024ko ekitaldian.

Udalak ematen dituen zerbitzuak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zehar- kako kudea- keta	Mankomuni- tatea
	Udala	Era- kunde autono- moak	Sozietate publikoa	Zerbitzu- kontratua	
Argiteria publikoa	x			x	
Hilerria	x				
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					x
Bide-garbiketa	x			x	
Uraren ziklo integrala					x
Estolderia	x				
Parke publikoa	x			x	x
Liburutegia-ludoteka	x				
Gizarte zerbitzuak	x				
Kirol instalazioak	x			x	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolek- tiboa					x
Hirigintza	x	x	x		
Udaltzaingoa	x				
Ingurumena	x			x	
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamen- duak	x			x	
Ikastetxe publikoen mantentzea	x				
Merkatua			x		
Berdintasunaren sustapena	x				
Turismo-jardueraren sustapena	x				
Merkataritza ibiltaria	x				
0-3 urtekoen ikastetxeak		x			

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Iruñeko Udalari 2024ko ekitaldian zehar aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

Estatuko arauak

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritza-eragiketeko berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.

Foru-araudia eta toki-entitatearena

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazio-rako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270 eta 272 Foru Dekretuetan ezartzen da, bai eta Nafarroako toki-entitateen aurrekontu-egitura onesten duen irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuan ere.
- Aurrekontuaren 2024rako betetze-oinarriak.
- Udal-ordenantzak.

4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Gehigarri honetan jasotzen dugu udalaren eta haren erakunde autonomoen kontratu mugaeguneratuen xehetasun bat, bai eta okerki munta txikikotzat izapidetuak izan diren eta legezkotasuna betetzearen fiskalizazioko iritzian salbuespen izan diren kontratuena ere.

Kontratu mugaeguneratuak

Udaleko kontratu mugaeguneratuak eta 2024an kontratuzko oinarririk gabe aitorturiko gastua honako hauek dira:

Alorra	Kontratuaren xedea	Aitortutako betebeharra 2024	Muga-eguna	Adjudikazioa
Hiri-kontserbazioa	Ibilgailuetarako erregaiaren hornidura	47.972	2023/09/30	2024ko apirila
	Bide-garbiketa (oinarrizko hiri-garbiketa)	10.221.147	2022/08/31	2025/07/01
	Bide-garbiketa (1. sorta), bideen egoera neguan	78.904	2022/08/31	2025/07/01
	Bide-garbiketa (bertikala, zaborrontziak eta saretak)	779.371	2022/10/31	2025/07/01
Kultura, Festak, Hezkuntza eta Kirola	Civivoxetako jardueren kudeaketa eta programazioa	2.094.648	2022/04/01	
	Civivox sareko zentroen garbiketa	497.347	2018/08/31	
	Eskola-guneen eta kirol-instalazioen garbiketa. 3 kontratu	1.713.084	2023/12/31	
	Kirol-instalazioen ustiatzea. 2 kontratu	160.279	2024/05/31	
Gobernu Estrategikoa, hirigintza, etxebizitza eta 2030 agenda	Aldamio-lagapena	172.874	2018/12/31	
Osasungintza	Udal-eraikinen garbiketa	142.223	2023/12/31	
Gizarte-ekintza	Gizarte-zerbitzuetako eraikinen garbiketa	214.747	2023/12/31	
Berdintasuna, ekintza komunitarioa, auzoak, herritarren parte-hartzea eta euskara	Zentro komunitarioak garbitzea	118.591	2023/12/31	
Ekonomiaren sustapena, Europaranzko proiektzioa, berrikuntza, gazteria eta garapenerako lankidetzak	Gaztediaren Etxearen kudeaketa eta programazioa	420.814	2023/03/31	2024/08/28
	Atezaintza, autobus-geltoki zaharreetan jendeari arreta ematea	16.438	2023/12/31	2024/04/15
	Guztira	16.678.439		

2024an, kontratu mugaeguneratuen ondoriozko gastuaren ehuneko 94 honako hiru zerbitzu hauena da: ehuneko 66, bide-garbiketarena; ehuneko 16, udal-eraikinen garbiketarena, eta ehuneko 12, Civivox sareko zerbitzu soziokulturalen kudeaketarena.

Erakunde autonomoetan, honako hauek dira mugaeguneratutako kontratuak:

Kontratuaren xedea	Erakunde autonomoak	Gastua (2024)	Muga-eguna
Bulegoen eta JM Huarte eskolaren garbiketa	Haur Eskolak	32.182	2010/06/30
Bulegoen garbiketa	Hirigintzako Gerentzia	22.854	2009/12/31
Lan-aholkularitza	Hirigintzako Gerentzia	4.308	2003/12/31

Munta txikiko kontratuak

Udalak okerki esleitu zituen, munta txikiko kontratu bezala, honako hornidura, segidako zerbitzu-emate eta obra hauek gutxienik:

Kontratuaren xedea	Gastua (2024)	Hornitzaile-kopurua
Pertsona etxegabeak edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenak ostatatzea	926.374	4
Jantziak	321.029	34
Kaleetako asfaltoa hobetzeko lanak	203.780	2
Oinezkoentzako pasabideak atontzea	169.839	2
Publizitate- eta komunikazio-kanpainak	130.809	2
Eszenatokien eta erakustokien muntaketa	130.785	1
Haur-jolasetarako materiala eta zoruak berritzea	129.156	1
Publizitatea	109.149	1
Erakusketa-kudeaketa	89.988	1
Kontzertu eta emankizunetako sonorizazioa	87.696	1
Igogailuen mantentze-lanak	69.884	1
Hiri altzariak	58.522	4
Komun-modulu eta -instalazioen alokairua	57.344	1
Erakusketak muntatzea	45.630	1
Landareak eta loreak	42.625	4
Sukalde- ekipamendua	19.117	2
Bideozaintza-zerbitzua	11.680	1
Guztira	2.603.407	

Etxegabeak edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak hotel eta pentsioetan aterpeposturik ezagatik ostatatzeagatiko gastua ehuneko 242 handiagoa izan zen 2023an baino. Etxegabeentzako ostatatze-zerbitzu hori 2025ean lizitatua izan da.

Erakunde autonomoetan okerki, munta txikiko kontratu gisa, izapidetuak izan ziren honako hornidura eta zerbitzu hauek, guztira 345.262 euroko zenbatekoarekin:

Kontratuaren xedea	Erakunde autonomoak	Gastua (2024)	Hornitzaile-kopurua
Gas-hornidura	Haur Eskolak	120.378	3
Argindarraren hornidura	Haur Eskolak	84.514	1
Inprimagailu-tonerren hornidura	Haur Eskolak	12.327	1
Eskola-materialaren hornidura	Haur Eskolak	27.656	-
Eraikinen mantentzea eta garbiketa	Haur Eskolak	22.114	1
Berokuntza-erregaiaren hornidura	Haur Eskolak	19.772	1
Bulego-altzari eta - ekipamenduen mantentzea	Haur Eskolak	16.531	1
Langileen aldagela	Haur Eskolak	33.800	1
Energia elektrikoaren hornidura	Hirigintzako Gerentzia	8.170	1
Gastua, guztira		345.262	

5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Ondoren adierazten ditugu oharrak eta aurkikuntzak, bai eta Ganbera honen iritziz fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesekoa izaten ahal den zenbait informazio gehigarri ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren eta haren mendeko erakundeen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

5.1 AURREKONTU OROKORRA ETA FINANTZEN EGOERA BATERATUA

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari udalaren 2024ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran eman zitzaion behin-behineko onespena, eta 2024ko maiatzaren 6an hartu zuen indarra, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, aurrerantzean) argitaratu ondoren. Gastu-eta diru-sarreraren honako hasierako aurreikuspen hauek jasotzen zituen:

Entitatea	Hasierako aurreikuspenak
Iruñeko Udala	266.909.923
Haur eskolak	13.913.000
Hirigintzako Gerentzia	10.222.600
Aurrekontu bateratua	271.243.522

2024ko ekitaldian zehar, 49,22 milioi euroko aurrekontu-aldaketak onetsi ziren, hasierako aurreikuspen bateratuen ehuneko 18. Onetsitako aldaketen ehuneko 64 inbertsioenak dira.

Aurrekontu-likidazio bateratua

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2024ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioa eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa honako hauek dira:

Adierazleak	2023	2024	Aldea (%a)
Aitortutako eskubide garbiak guztira	288.826.913	262.095.385	-9
Aitortutako betebeharrak garbiak guztira	261.774.815	296.377.030	13
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	237.909.897	245.838.330	3
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	221.104.287	236.890.083	7
Kapitaleko diru-sarrerak	50.689.963	16.017.771	-68
Kapitaleko gastuak	31.883.902	51.248.804	61
Saldo ez-finantzarioa	34.663.236	-27.082.023	-178

Aurreko datu horiek kontuan hartuz, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2024an aitortutako betebeharren zenbatekoa 296,38 milioi eurokoa da; hots, 34,28 milioi handiagoa da aitortutako eskubideena baino. Ehuneko 13 igo ziren 2023an aitorturiko gastuen aldean; gehienbat, inbertsioek ehuneko 60 egin zutelako gora, eta langileria-gastuek ehuneko 10; horri kontrajarririk, diru-sarrerak ehuneko bederatzi egin zuten behera, kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 68ko beherakada izan zutelako.

- Diru-sarrera arruntak behar bezainbestekoak izan ziren funtzionamendu-gastuei aurre egi-teko; dena den, aurreko ekitaldietan sumatutako joerak bereari eusten dio, urterik urte gastu horiek diru-sarrera arruntan gorakada baino neurri handiagoan hazterantz: ehuneko zazpi, versus ehuneko hiru. Aitzitik, kapitaleko gastuek, zeinak 51,25 milioiokoa izan baitziren, 2024ko ekitaldian ez zuten behar adinako finantzaketarik izan, halako moldez non 27,08 milioiokoa saldo ez-finantzario negatiboa sortu baitzen.

Taula honetan ageri dira udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan, eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Gastuaren izaera	2023 (%)	2024 (%)	Finantzaketa-iturria	2023 (%)	2024 (%)
Langileria	46	45	Zerga bidezko diru-sarrerak	33	36
Gastu arr., ondasunak eta zerbitzuak	33	30	Transferentziak	47	51
Transferentziengatiko gastuak	7	7	Ondare diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	20	13
Inbertsio errealak	11	15	Pasibo finantzarioak	0	0
Finantza-zama	3	3			
Guztira	100	100		100	100

Finantza-egoera bateratuaren azterketa

Adierazlea	2023	2024	Aldea (%a)
Aurrezki gordina	16.805.610	8.948.247	-47
Finantza-zama	8.589.115	8.016.553	-7
Aurrezki garbia	8.216.495	931.694	-89
Finantza-zamaren indizea	% 4	% 3	-25
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak	% 7	% 4	-43
Zor bizia	39.740.118	31.751.374	-20
Zorpetze maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)*	% 15	% 12	-20
Aurrekontu-emaizta doitua	32.699.234	4.650.044	-86
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	41.089.273	26.454.382	-36
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 33	% 36	9
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak) *100	% 43	% 50	16

* Ez da aintzat hartzen PCH udal-sozietatearen zorra, zeina 3.857.142 eurokoa baitzen 2023an, eta 3.085.714 eurokoa 2024an.

Aurreko datuen analisitik abiatuta, honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Baliabide arrunten gaindikinak (aurrezpen garbiak) nabarmenki egin du behera, 8,22 milioitik 0,93ra; izan ere, batetik, 6,5 milioiko gastua sortu zuen, 2024an, udaltzainei proba fisikoak gainditzegatiko osagarria ordaintzeak, eta, bestetik, funtzionamendu-gastuek hein handiagoan egin dute gora diru-sarrera arruntek baino: lau portzentaje-puntu 2024an.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin kopurutsu bat badago, 26,45 milioikoa, geroko ekitaldietako gastuak finantzatzekoa, nahiz eta ehuneko 36 jaitsi den 2023an zegoenarekin alderatuta.

- 2024an lortutako aurrekontu-emaizta doitua 4,65 milioikoa izan zen. Horri buruz, 2024ko gastuak nabarmen zuten, 29,99 milioikoak, diruzaintza-gerakinarekin finantzatuak, bai eta 14,17 milioiko finantza-desbideratze negatiboa ere. Kontzeptu horiek gorantz doitu zuten aurrekontu-emaizta negatiboa, 34,28 milioikoa, 2024ko aurrekontu-likidaziotik lortua.

- Zorraren zama finantzarioa, 28,66 milioikoa 2024ko abenduaren 31n, diru-sarrera arrunten ehuneko 3 baizik ez da, eta zorra ehuneko 20 jaitsi zen 2023tik 2024ra bitartean.

- Diruzaintzako gerakina gutxitzen duten diru-bilketa zaileko eskubideak 19,1 milioikoak zirela estimatu zen.

2024an, udalak diru-bilketa zail edo ezinezkoa duten zorduntzat jo zituen itxieraren aurreko ekitaldian likidaturiko aurrekontu-eskubideei zegozkien zordunen ehuneko 50, eta itxieraren aurreko ekitaldiaren aurrekoak diren ekitaldietan zehar likidaturiko aurrekontu-eskubideei dagozkien zordunen ehuneko 100, heldurik 270/1998 Foru Dekretuan ezarritako irizpideari.

Horrela, bete egiten da Ganbera honek 2023ko ekitaldiaren fiskalizazioan adierazi zuen gomendioa, zeina baitzen gaurkotuak izan zitezela diruzaintza-gerakinetik deskontatuak izandako diru-bilketa zaileko

eskubideak zehazteko aplikaturiko balorazio-irizpideak. Izan ere, udalak aplikatzen zuen irizpidea oinarritzen zen zerga, tasa eta prezio publikoetatik eratorritako zorren antzintasun-egunaren arabera kobragarritasunari buruz 2000. urtean egindako analisi batean, egiazki eginiko kobrantzenak baino handiagoak ziren kobrantza-portzentaje batzuk erabiliz, Ganbera honek 2023ko ekitaldiaren fiskalizazioan egiaztatu zuen bezala.

Laburbilduz: 2024ko finantza-egoera sasoitsua da, aurreko adierazleek erakusten duten bezala.

Alabaina, 2022tik 2024ra bitarteko epean bai aurrezpen gordinak bai garbiak beherakada nabarmena izan dute.

Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan zehar bertan behera utzi ziren Espainiako arau fiskalak, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, ezen hark erabaki zuen Egonkortasun eta Hazkunderako Ituneko babes-klausula orokorra aplikatzea, hasieran COVID-19aren ondoriozko pandemiak eta gero batean Ukrainako gerrak eragindako efektuak samurtze aldera. Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak jo zuen salbuespenezko inguruabarrak betetzen zirela, eta baliozkotu egin zuen aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu-erregelako helburuak aipatu lau ekitaldietan etetea.

Europako Batzordeak Kontseiluari 2023ko martxoaren 8an igorritako komunikazioaren bitartez ezarri zenez, 2023aren amaieratik aurrera babes-klausula orokorra erretiratu eginen zen; horrenbestez, erregela fiskalak 2024an berraktibatuta geratu ziren.

Senatuak ez zuen onetsi egonkortasun-helburuen proposamena, aurkeztuak izan ziren bi okasioetan. Hori horrela, 2024rako indardun diren helburuak dira Gobernuak Europako Batzordeari 2023ko apirilean igorritako Egonkortasun Programan jasotzen direnak. Programa horrek BPGaren ehuneko 0,2ko egonkortasun-helburua ezartzen zuen toki-korporazioentzat.

Gastu-erregelari dagokionez, gastu konputagarriarentzat ehuneko 2,6ko gehieneko hazkundeko helburua ezarri zen.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, tokiko administrazio publikotzat hartzen dira, Kontu Nazionalen eta Erregionalen Europar Sistemaren arabera, honako erakunde hauek: udala bera, haren erakunde autonomoak, haur eskolak eta Hirigintzako Gerentzia, merkatuz kanpoko udal-sozietate publikoak (Pamplona Centro Histórico-Iruña Biziberritzen SA, Animsa eta EELZ SLU) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

Aurrekontu-egonkortasunari, gastu-erregelari eta zor komertzialaren jasagarritasunari dagozkien helburuen betetzeaz, honako hau azpimarratzen dugu:

- Ez zen bete aurrekontu-egonkortasuneko helburua; izan ere, udaleko toki-sektore publikoak 21.465.380 euroko defizit bat zeukan 2024ko abenduaren 31n.

- Gastu-erregelari dagokionez, 2024ko gastu konputagarria 221.958.185 eurokoa izan zen, muga baimendua baino 26.398.909 euro handiagoa. Horrek esan nahi du gastu konputagarriaren hazkundera handiagoa izan zela 2024rako onetsitako ehuneko 2,6ko erreferentzia-tasa baino.

Bi helburu horiek ez betetzeagatik taxutu beharko litzatekeen plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, udaleko kontu-hartzaileak ez-betetze horri buruzko jakinarazpena helarazi zion udalbatzari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezartzen duenari jarraituz, zeren defizita 2024an egin eta diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuengatik sortu baitzen. Gastu-erregela urratzeari dagokionez, halaber betetzen dira foru lege horretan plan ekonomiko-finantzarioak ez egiteko ezartzen diren baldintzak, zeren 2024ko aurrekontua gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinarekin eta aurrezki garbi positiboarekin likidatu baitzen.

Jakinarazpenaren berri jaso izana aitortze aldera udalbatzak hartutako erabakia, bai eta kontu-hartzailearen txostena ere, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiri igorri zitzaizkion.

• Zor komertzialaren iraunkortasunari dagokionez, hura bete egin zen, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ez baitzuen gaintitu berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako 30 eguneko gehieneko epea, honako taula honetan ikusten ahal den bezala:

Hiruhilekoa	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengoa	26,75
Bigarrena	22,02
Hirugarrena	20,89
Laugarrena	18,26

5.2 IRUÑEKO UDALA

5.2.1 Barne-kontrola

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak udalaren kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola ezartzen du, hiru adieratan: kontu-hartzailletza funtzioa, finantza-kontrolaren funtzioa eta eraginkortasunaren kontrolaren funtzioa.

Foru Komunitatearen esparruan, ez da erregelamenduz garatu barne-kontrolaren erregulazioa. Ez da hori gertatu estatuaren esparruan; izan ere, Toki sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi zen.

Udalaren barne-kontrolari dagokionez, funtzio kontu-hartzailea baino ez da gauzatzen, ez finantza-kontrola, ez eta eraginkortasunaren kontrola ere.

Erakunde autonomoetan, udal-sozietate publikoetan eta Gayarre Antzokia fundazioan kontuen eta legezkotasun-betetzearen auditoretza egiten da.

Kontu-hartzailletza funtzioa, espedienteetan agertzen denez, betetzen da gastua onesten duen organoaren eskumena eta gastu hori kontabilizatzen den partidaren egokitasuna egiaztatuz.

Aurretiazko fiskalizazioa aipaturiko zertzeladetara mugatzen denez, kontu-hartze organoak ez du eragozpen-oharrik egin aztertutako egintzen, dokumentuen edo espedienteen funtsarekiko edo formarekiko ezein desadostasunen ondorioz.

Kontu-hartze mugatuaren gainean ez da gero lagin baten bidezko erabateko kontu-hartzerik egiten; beraz, ez da jaulki udalbatzari helarazi beharreko idatzizko txostenik, kudeatze-organoei ateratako konklusioak eta, kasua bada, egindako oharrak jasotzen dituenik.

Udalaren langileria-gastuak, zeinek 2024an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 42 egiten baitute, ez dira fiskalizatzen.

Diru-sarrerak ez dira fiskalizatzen.

5.2.2 Aurrekontuaren exekuzioa

Udalan 2024an aitortutako betebeharrek 291,72 milioi egin zituzten. Honako kapitulu ekonomiko hauek nabarmentzen dira: ehuneko 42 langileria-gastuak dira; ehuneko 30, ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak; ehuneko 13, inbertsioak; eta ehuneko 9, transferentzia arruntak.

Aurrekontu-aldaketak hasierako aurrekontuaren ehuneko 17koak izan ziren. Behin betiko kredituen ehuneko 93 egin zuten gastu exekutatuak.

2024an aitortutako betebeharrak 2023an aitortutakoak baino ehuneko 14 handiagoak izan ziren, batez ere gora egin zutelako inbertsioek, ehuneko 84, bai eta langileria-gastuek ere, ehuneko 11.

Sailkapen funtzionalari dagokionez, honako gastu-programa hauek nabarmentzen dira: “Udal-tzaingoa”, guztizko gastuaren ehuneko 12rekin; “Pentsioak”, ehuneko 10ekin; eta “Hezkuntza”, “Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena” eta “Kultura” programak, horietako bakoitzak ehuneko 9 duela.

2024an udalean aitortutako eskubideak 261,46 milioira iritsi ziren. Nabarmentzekoak dira transferentzia eta tributuengatiko diru-sarrerak, aitorturiko eskubide guztien ehuneko 49 eta 36 egiten baitute, hurrenez hurren.

2024an aitortutako eskubideak 2023an aitorturikoak baino ehuneko 9 txikiagoak izan ziren; batez ere, ehuneko 68ko beherakada izan zutelako lursailak besterentzeagatiko diru-sarrerek.

5.2.3 Langileria-gastuak

2024an, Udalaren langileria-gastuak 121,24 milioioak izan ziren. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 100 izan zen.

2023. eta 2024. urteetan aitorturiko betebeharrak honako hauek izan ziren, kontzeptu ekonomikoa:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea (%)
Gobernu-organoen eta zuzendaritza-langileen ordainsariak	1.032.918	1.053.067	2
Behin-behineko langileen ordainsariak	2.269.959	2.569.706	13
Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak	31.293.960	33.523.132	7
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	19.527.965	23.310.477	19
Lan-kontratudun finkoen ordainsariak	3.666.485	3.837.934	5
Aldi baterako lan-kontratudun diren langileen ordainsariak	7.838.433	10.028.763	28
Gizarte Segurantza, pentsioak eta gizarte-gastuak	43.193.743	46.918.292	9
Guztira	108.823.463	121.241.371	11

Ehuneko 44 funtzionarioen ordainsariei dagokie; ehuneko 22, pentsioei; eta ehuneko 16, gizarte-kuotei.

Sailkapen organikoari dagokionez, gastuaren ehuneko 29 “Herritarren segurtasuna eta bizikidetza” alorrari dagokio; ehuneko 27, “giza baliabideei” –horri egozten zaizkio pentsioak eta gizarte-prestazioak–, eta ehuneko 17, “Gizarte Ekintza” alorrari.

2023tik 2024ra, langileria-gastuek ehuneko 11ko gorakada izan zuten; hots, 12,42 milioiokoa. Jarraian, igoera horren arrazoi nagusiak eta gorakadan izan duten portzentajezko pisua adieraziko ditugu:

Igoeraren arrazoiak	Zenbatekoa	Igoeraren gaineko %
Udaltzaingoareen proba fisikoen osagarria 2019-2023	6.500.000	52
% 2,5eko soldata-igoera eta % 3,8ko pentsio-igoera	2.647.225	21
EELZa desegiteagatik aldi baterako langileak kontratatzea	1.870.052	15
Enpresaren Gizarte Segurantza aldatzea	963.615	8
Aldi baterako enplegua egonkortzearen kalte-ordainak	526.373	4

EELZ sozietatea desegiteagatik aldi baterako langileen kontratazioak ehuneko 15eko igoera izatearen arrazoiak da ezen, 2023an zehar, eta sozietatea 2024ko martxoan desegin zen arte, kontratazio horiek ez zirela udalak eginak, EELZ enpresak baizik.

2022ko abenduan, udalak bereganatu egin zuen EELZ sozietatearen langileria finkoa, eta 178 langile udalera itzuli ziren. Alabaina, udalak sozietatearen ardurapean utzi zuen, 2024ko martxoan desegin zen arte, etxex etxeko laguntzako zerbitzuan ordezkapenak egiteko aldi baterako langileen kontratazioa.

Gure ustez, udaleko langile finkoen ordeztatzeko aldi baterako langileak udalaren eskutik kontratatutako izan beharko ziren, udala zen-eta etxez etxeko laguntzako zerbitzua kudeatzen zuen entitatea.

Langileria-gastuen berrikuspena

Honako hauek dira langileria-gastuen fiskalizaziotik ateratako emaitzak:

- Kontabilizatutako langileria-gastua bat dator nominen aplikazio informatikoaren arabera kalkulatatutako eta ordaindutako gastuarekin.

- Plantilla organikoan jasota dauden lanpostuaren ordainsari guztiak ordaindu dira, eta pagatutako ordainsari-kontzeptuak plantillan txertatuta dauden lanpostuei esleituta daude, salbu eta plantillan jasotzen ez diren honako osagarri hauek, nahiz eta baduten euskarririk eta justifikatuta dauden:

a) "Lanpostuaren osagarria", mailaren ehuneko 17koa, Udaltzaingoari dagozkion proba fisikoak gaingidzeagatik 398 agentek jasotakoa eta plantillaren eranskin batean zehaztua.

b) "Lanpostuaren eginkizunengatik osagarria" 79 lanposturi esleitzen zaie, eta horietatik 48 plantillaren IV. eranskinean zehazten dira. Gainerako 31 lanpostuei dagokien osagarria ez da plantillan jasotzen, eta, oro har, horren pagamenduak ebazpen edo txosten bat izan ohi du oinarritzat. Osagarri horren zenbatekoa mailako soldataren ehuneko 1 eta 38ren artekoa da.

Era berean, plantillan jasota badaude ere, "irakaskuntza-osagarriak" ordaindu zaizkie musika-eskolako 66 pertsonari eta lantegi-eskolako begiraleei. Osagarri hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ezarrita dago Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioentzat.

Emaitza hauek iraileko nominako 15 kontzepturen (oinarrizko soldata, osagarriak, gradua eta antzinatasuna) 7.569 erregistroko lagin bat berrikusita lortu dira, 1.515 enplegatari zegozkien 3,87 milioiko guztizko zenbatekoarekin. Berrikuspen horrek funtzionarioei eta lan-kontratudunei irailean pagatu zitzaizkien ordainsari-kontzeptuen ehuneko 91,7 egiten du.

- Egiaztatu dugunez, behin-behineko langileek 2024ko irailean izandako ordainsariak, guztira 182.572 euro, izendapen askeko zuzendaritza-postuak betetzen dituzten 46 pertsonari ordainduak, hain zuzen ere plantilla organikoan ezarritakoak dira.

- Identifikatu gabeko 18.851 euroko alde bat ageri da Gizarte Segurantzari ordaindutako zenbatekoaren eta kontabilizatuaren artean.

Udaltzaingoa

- Udaltzaingoari 2024an pagatutako ordainsari aldakorak 1,97 milioikoak izan ziren.

Ordainsari horiek ordaintzeko euskarri gisa udaltzaingoaren kudeaketarako aplikazio informatikotik lorturiko informazioa erabili da. Bertan zehazten da 408 udaltzainen lan-egutegia ("cuadrantes").

2023ko ekitaldiaren fiskalizazioan ikusi genuen bezala, aplikazio hori ez dago konektatuta presentzia-kontrolerako aplikazio informatikoarekin.

Bestalde, udaltzaingoaren kudeaketa-lanabes informatikoak ez dauka kontrolik ezarrita langileria horren kudeaketako arriskuak gutxitzeko, hala nola egutegiaren edo ezarritako txandaren urraketak, edo kobraturiko aparteko orduak, besteak beste.

- Udaltzainek ehuneko 17ko osagarria daukate aitortuta udalak urtero deitu beharrekoak diren proba fisikoak gaingidzeagatik.

2024an 6,5 milioi ordaindu ziren 2018-2022ko epeari dagokion osagarriarengatik. Kopuru horretan sartuta daude 81 polizia erretiraturik ordaindutako 593.165 euroak. Haiek ez zituzten egin

2023ko urrian deituriko proba fisikoak. Udalak eskatu zuen oker ordaindutako kopuruak itzul zitezela.

- Udaltzaingorako ordainsari-erregelamendu berri bat negoziatu da. Udaleko Osoko Bilkurak ez du oraindik onetsi. Nafarroako Foruzaingoarekiko ordainsari-parekatzetik eratortzen da, zeina ezarri baitzen udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-kontratadunen akordio kolektiboan.

Plantilla organikoa

Udaleko Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion, 2024ko martxoaren 27an, 2024ko plantilla organikoari, eta haren behin betiko onespina 2024ko ekainaren 24ko NAO-n argitaratu zen. 2022an eta 2023an ez zen plantilla organikorik onetsi.

2024ko plantillak 1.641 lanpostu biltzen ditu, honako araubide juridiko honekin:

Araubidea	2024
Behin-behineko langileak	30
Funtzionarioak	1.282
Lan-kontratadun langileak	329
Guztira	3.665

Hona plazen egoera:

Langileria	2023	2024
Plantillako plazarak	1.624	1.641
Betetakoak	998	1.168
Hutsik	626	473
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	39	29
Beteta dauden lanpostu hutsak	485	349
Beteta dauden lanpostu hutsak (%)	77	74
Aldi baterako kontratazioa (%)	33	23

2024an, lanpostu guztien ehuneko 29 hutsik zeuden, eta horietatik ehuneko 74 beterik zeuden.

Ebazkizun dago udalak 2023an Auzitegi Gorenari aurkeztu zion kasazio-errekurtoa, plantilla organikoa onesteko eskumena zeukan organo eskudunari (Osoko Bilkura ala TGB-tokiko gobernatzarra) buruzkoa.

Enplegu eskaintza publikoa (EEP)

2024an, TGBk honako EEP hauek onetsi eta argitaratu zituen NAO-n:

- 84 lanpostu ordezteko EEPa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea, 2024rako luzatua, baimendutako ordezte-tasen arabera.

84 postu horietatik, 30 ez dira ordezte-tasarako konputagarri, haiek barne-sustapenez ordezten direlako edo epai judizialez langile mugagabe ez-finko deklaraturako langileenak direlako.

- 15 postuko EEPa, abenduaren 23ko 31/2022 Legeak –2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, 2024rako luzatua– salbuespen gisa baimentzen zuen tasa espezifikoren arabera, xede harturik Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako helburua betetzea; hots, behin-behinekotasun tasa egiturazko plazen ehuneko zortzi baino gutxiagokoa izan dadin, baldin eta izan beharko duen urte anitzeko plangintza-tresnaren arabera justifikatuta badago.

2024an, langileen behin-behinekotasunaren indizea ehuneko 23 zen, kalkulaturik aldi baterako betetako lanpostuen eta behin betiko nahiz behin-behinean betetako lanpostu guztien arteko zatidura gisa. Horrek esan nahi du indize hori hamar portzentaje-puntu baxuagoa zela 2023an zegoena baino.

2023tik 2024ra bitartean langileriaren behin-behinekotasunak izandako murrizte nabarmen horren arrazoia dira araudiak baimendutako egonkortze-prozesuen barrenean onetsitako eta deitutako EEPak, nahiz eta behin-behinekotasuna nabarmenki handiagoa izan ehuneko zortziaren helburua baino.


2024ko ekitaldiaren itxieran, honako hau zen 2022tik 2024ra bitarteko EEPen egoera:

	2022		2023		2024	
	Berritzeak	Egonkortzea	Berritzeak	Egonkortze gehigarria	Berritzeak	Egonkortze gehigarria
Enplegu eskaintza publikoa	41	265	49	50	84	15
Deitutakoak	23	265	24	0	35	4
Martxan	1	13	11	0	26	4
Bukatuak	22	250	13	0	9	
Adjudikatu gabe		2				

2024an amaitu zen 265 postuetatik 250 egonkortzeko EEPa, 2022an onetsia. 2023an 50 postutarako onetsitako egonkortze-EEPar dagokionez, ez zen ezein postutarako deialdirik egin.

Ez dago trazabilitaterik deituriko postuen eta eskainitako postuaren artean.

Ondoko grafikoan erakusten dugu nola banatzen zen udalaren langileria finkoa adin-tarteka, 2022an eta 2024an:



Iturria: udaleko langileria-alorra.

Enplegatuen batez besteko adina 51 urtekoa da. 2024an, langileriaren ehuneko 41ek 55 urte baino gehiago ditu.

Aurreko ekitaldietan eginiko gomendio hauek bete dira:

- *Ekitaldiko plantilla organikoa onestea eta argitaratzea.*
- *Enplegu-egonkortzearen ezohiko tasa espezifikoaren justifikaziorako dokumentua den urte anitzeko plangintzarako tresnan aztertzea langileen behin-behinekotasuna ehuneko zortitik behera murrizteko neurriak.*
- *Proba fisikoak egin ez zituzten udaltzain erretiratuei eskatzea proba horiek gainditzeagatik osagarri gisa jasotako zenbatekoak itzultzea.*

Indarrean jarraitzen dute honako gomendio hauek:

- *Udaltzaingoari pagatutako ordainsari aldakorrak kontrolatzea eta justifikatzea, presentzia-kontrolerako aplikazio informatikoaren bidez.*
- *Nominako ordainsari aldakorre buruzko datuen informazioaren bidaltzea nominaren aplikazio informatikoari dagokion aplikazio informatikotik automatizatzearen bideragarritasuna aztertzea.*
- *Plantilla organikoan lanpostu guztiak zerrendatzea, plantilla gauzatzeko arau osagarrietan jasotakoak barne, bakoitzak dituen ordainsari-osagarriak aipaturik.*
- *Musika-eskolako eta lantegi-eskolako langileen "irakaskuntza-osagarria" deritzona egokitzea Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean araututako osagarrietara.*

Gure fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, gomendatzen dugu enplegu-eskaintza publikoak onestea eta postueterako deialdiak egitea, langileriaren behin-behinekotasun tasa murrizteko eta plantillaren zahartzea jaisteko.

5.2.4 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 88,11 milioikoak izan ziren, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan da.

Hona gastu horiek 2023ko eta 2024ko ekitaldietan izan duten exekuzioa:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea (%a) 2024/2023
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen errentamenduak	709.517	1.437.115	103
Makineriaren, instalazioen eta lanabesen errentamenduak	12.255	50.631	313
Garraio-elementuen errentamenduak	265.012	204.316	-23
Informazioa prozesatzeko ekipamenduen errentamenduak	7.175	0	-100
Azpiegiturak eta ondasun naturalak	8.014.506	9.485.526	18
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2.556.218	2.437.900	-5
Makineria, instalazio teknikoak eta tresneria	495.060	707.665	43
Garraio-elementuak	129.493	166.694	29
Altzariak	122.131	82.604	-32
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	23.450	52.925	126
Bestelako ibilgetu materiala	67.279	35.749	-47
Bulegoko materiala	140.947	151.147	7
Hornidurak	14.950.888	12.182.309	-19
Komunikazioak	1.377.452	1.527.944	11
Garraioak	16.724	18.779	12
Aseguru-primak	496.600	558.954	13
Zergak	156.929	164.108	5
Askotariko gastuak	5.207.251	5.978.742	15
Beste enpresa eta profesional batzuek egindako lanak	49.021.225	52.646.934	7
Beste kalte-ordain batzuk	68.671	84.111	22
Argitalpen- eta banaketa-gastuak	143.352	140.004	-2
Guztira	83.982.1355	88.114.157	5

2024an aitorturiko ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntek ehuneko 5 egin zuten gora, 2023ko ekitaldikoan aldean; hots, 4,13 milioi.

Aipagarri da enpresek eta profesionalek eginiko lanek izan duten 3,63 milioiko gehikuntza, eta azpiegitura-gastuen 1,47 milioikoa. Orobat da aipagarria “hornidurak” atalak izan duen 2,77 milioiko beherakada.

Honako hauek dira ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kontzeptu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoan arteko aldeak:

Kontzeptua	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldaketa	2024/2023 aldea (%)
Bide publikoaren garbiketa-kontratua	10.286.213	11.058.209	771.996	8
MUGAren kudeaketa-kontratua	10.082.500	10.082.500	0	0
Erabilera publikoko ondasunen mantentze-lanak eta konponketa	4.897.369	6.351.692	1.454.323	30
Argiteria publikoaren kontsumoa	4.658.513	3.226.000	-1.432.513	-31
Zerbitzu informatikoen enkargua	2.848.369	3.061.094	212.725	7

Erabilera publikoko ondasunen mantentze eta konponketarako gastuek izandako 1,45 milioiko gehikuntza eta argiteria publikoko gastuen 1,43 milioiko beherakada azpimarratzen ditugu.

Honako kontratu hauen exekuzioa berrikusi dugu:

Kontratuaren xedea	ABG, 2024
Bide-garbitzeta (1. sorta)	10.221.147
Gaztediaren Etxearen kudeaketa, urtarila-abuztua	454.590

Gastu horiek onartuta, justifikatuta, kontu hartuta, behar bezala kontabilizatuta eta epean ordainduta daude.

• Egiaztatu dugu kale-garbitzea ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egiten direla; besteak beste, honako hauek: eguneroko lan-gaztiguen jaulkipena, haien bitartez kontrolatzen direlarik egi-azki eginiko orduak versus eskainitako orduak; udaleko ikuskapen-zerbitzuak eginiko etengabeko gainbegiratzea; kasuko zerbitzu-ematearen gaineko kalitate-kontrolak, zorizko ekintzen bitartez eginak, eta abisu nahiz kexei erantzutea, gehienetan 24 ordu baino gutxiagoko epean.

Dena den, ez da egiaztatzen enpresak bere eskaintzan konprometitu zituen irizpide sozialak betetzen direnik; besteak beste, kolektibo behartsuetako langileak kontratatzearena, kontratazio berrien, baje eta ordezteen kasuan. Egiaztatu gabe uzten da, halaber, administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritako exekuzio-baldintza berezi guztien betetzea.

• Gaztediaren Etxearen kudeaketari dagokionez, ez da egiaztatzen esleipen-hartzaileak bete ote duen etengabeko prestakuntzarako plana. Urteko oroitidazkian jaso beharko luketen diru-sar-
reren eta gastuen balantzea ere ez dute aurkezten, eta eskatu ere ez zaie eskatzen.

Kontratu-exekuziorako baldintza berezietan ezarritako gardentasun-lanabesa ez da ezarri. Ho-
rretarako hiru hilabeteko epe bat ezarri zen, 2024ko abuztuaren 28an egindako kontratu-esleipe-
netik aurrerakoa.

Administrazio-kontratazioa

Esleikizun diraute, lizitazioa errekurritua izateagatik, honako kontratu mugaeguneratu hauek:

Alorra	Kontratuaren xedea	Aitortutako betebeharra 2024	Muga-eguna
Herritarren segurtasuna	Bide publikoetako aparkatze arautua	10.082.500	2023/12/31
	Ibilgailuak eramatea	994.500	2023/12/31
	Trafikoa erregulatzeko instalazioetarako laguntza teknikoa	537.737	2023/12/31

Honako zerbitzu- eta hornidura-kontratu hauen lizitazioa, adjudikazioa eta exekuzioa aztertu ditugu:

Kontratuaren xedea	Adjudikazio-prozedura	Lizitatzailerikoa	Balio zenbate-tsia BEZik gabe	Esleipenaren prezioa BEZik gabe	Behar-pena (%)
Gaztediaren Etxearen kudea-keta eta programazioa	Irekita	1	2.514.884	1.194.240	0,28
Etterik gabeko pertsonen la-gun egitea	Negoziatua, publizitaterik gabe	1	135.000	135.000	0
Turismoko plan estrategikoa	Irekita	2	105.292	73.704	30

Oro har, gastuak onetsita, kontu-hartzaileak ikuskatuta, justifikatuta, egokiro kontabilizatuta eta epe barruan pagatuta daude, eta berrikusitako kontratuen lizitazioa eta esleipena kontratu-legeriari jarraikiz izapidetu dira, jarraian adierazten diren urraketak salbuespen direla.

- Gaztediaren Etxearen kudeaketarako kontratua 2023ko martxoaren 31n amaitu zen, eta kontratu berria ez zen 2024ko irailera arte esleitu.

Kontratu hori sorta bakarrean lizitatzearen zergatia izan zen, espedientean jasotzen denez, hiegiezin hori kudeatzearen, horretaz bereiz ikastaro eta jarduerak esleipen-hartzaile bat baino gehiagoren artean programatzearen eta bi prestazio horiek beharrezko egiten duten koordinazioaren zailtasun teknikoa. Kontratuaren xede diren prestazioak bereiz exekutatzeko moduko sortatan banatuak izateak sortuko lituzkeen zailtasunak ez dira zehazten.

Esleipen-irizpide gisa baloratu ziren nahitaez bete beharrekoak diren zenbait zertzelada, hala nola kontratua exekutatzen duten langileei lan-hitzarmena aplikatzea edo berdintasun-plan bat egiteko konpromisoa.

Kontratuaren esleipena ez zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu.

- Etxerik gabeko pertsoneri lagun egiteko zerbitzurako kontratua lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuz esleitu zen, eta horretarako arrazoia izan zen, azaltzen digutenez, proiektu pilotu bat zela-eta, eskarmentua, jakintza eta lanabes egokiak dituen entitate batengana jo beharra. Ez da adierazten zein arrazoi tekniko direla-eta kontratua enpresa jakin batek bakarrik eta ez bestek exekutatzen ahalko lukeen.

Ez zen negoziazio-gairik eta -irizpiderik ez eta haien haztapenik ere ezarri.

Kontratu hau 2024ko abenduan mugaeguneratu zen, eta 2025ean lizitatu zen prozedura irekiz.

- MICE turismo jasangarriaren plan estrategikoko esleipen-irizpide kualitatiboek guztizko puntuazioaren ehuneko 50 egiten dute, eta honako hauek dira: lan-plana eta metodologia, garapenerako estrategia, MICE produktu jasangarriaren kudeaketa eta sustapena, eta lan-taldearen antolaketa. Irizpide horiek baloratu ziren aurkeztutako eskaintzak horietaz egiten zuen deskribapenaren xehetasun eta argitasunaren arabera, eta pleguetan ez ziren konkretuki, zehazki eta objektiboki definitu haien baloraziorako parametroak.

Exekuzio-baldintza berezi gisa zenbait betebeharrak ezarri ziren, kontratu hau EB Next Generation funtsekin finantzatzearen ondoriozkoak.

Kontratua 2024ko apirilaren 26an sinatu zen, eta horren exekuziorako honako epe hauek ezarri ziren: bost hilabete, diagnostikoa eta plan estrategikoa prestatzeko, eta sei hilabete, hori exekutatzeko (2025eko martxora bitarte). Diagnostikoa eta plan estrategikoa 2024ko abenduaren 12an entregatu ziren.

Turismo-plan estrategikoaren exekuzioak honako hauek barne hartzen ditu: Convention Bureau bat sortzea, helmugaren sustapen eta atzipen bateraturako plan bat zehaztea, web-orri bat garatzea eta turismo korporatiboa eta sari-turismoa sustatzeko plan bat taxutzea.

2025eko irailaren 30ean, aipatu jarduketa guzti-guztiak egin gabe zeuden, eta kontratua 2025eko abenduaren 31n amaitzen zen.

2025ean, udalak 28.420 euroan lizitatu zuen (BEZa kanpo) Convention Bureau abiarazteko beharrezkoa den dokumentazioa prestatzeko laguntza teknikoa; izan ere, plan estrategikoaren exekuzioaren esleipen-hartzaileak Convention Bureauaren sorreraren nondik norakoei buruz eginiko txostenari ez-nahikotzat iritzi zion, nahiz eta hark egin zuen eskaintza teknikoa 50 puntutik 40rekin baloratua izan zen, jo zen-eta argiro, ongi arrazoituz eta luze-zabalean deskribatzen zuela plan estrategikoaren exekuzioari buruzko lan-proposamena.

Munta txikiko kontratuak

Udalak ez zituen Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu 2024ko azken hiru hiruhilekotan munta txikiko kontratuen araubide bereziaren arabera eginiko esleipenak.

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten fiskalizaziotik eratorritako konklusioei jarraikiz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Egiazta bedi esleipen-irizpide bezala baloratuak izan diren eskaintzaren nondik norakoak bete egiten direla.*
- *Zehatz bitez zer-nolako zailtasunak ekartzen ahalko lituzkeen banaketarik gabe lizitaturiko prestazioak sortatan banatzeak.*
- *Legezko betebeharrak diren horiek ez bitez kontratu-exekuzioaren baldintza berezi gisa eza-riak izan.*
- *Pleguetan xehetasun, zehaztasun eta objektibotasunez adieraz bitez esleipen-irizpide kualitati- boak eta horien baloraziorako erregelak.*
- *Europar Batasunaren atalasea gainditzin duen balio zenbatetsiko kontratuen esleipena Eu- ropar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 2022ko eta 2023ko ekitaldietako fiskalizazi- oan ere gomendatu genuen bezala.*
- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratueterako araubide be- reziaren bitartezko esleipenak.*

5.2.5 Transferentzien gastuak

2024an, udalak transferentzia arruntei nahiz kapitalekoei dagozkien 38,67 milioi onetsi zituen honako onuradun hauentzat:

Kontzeptua	Transferentzia arruntak			Kapital-transferentziak		
	ABG 2023	ABG 2024	Aldea (%) 2024/ 2023	ABG 2023	ABG 2024	Aldea (%) 2024/ 2023
Erakunde autonomoak	12.607.466	12.825.179	2	4.210.059	5.346.544	27
Toki-entitatea, merkataritza-sozietateak	1.880.229	1.524.093	-19	1.047.829	3.371.429	222
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorra	221.495	214.776	-3	0	126.181	0
Nafarroako Foru Komunitatearen enpresa publikoak	170.000	167.530	-1	0	0	
Toki-erakundeak	4.854.597	3.897.361	-20	0	47.776	0
Enpresa pribatuak	193.517	198.157	2	0	0	
Familiak	2.090.551	2.288.023	9	1.784.078	1.589.275	-11
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	4.739.125	4.977.127	5	540.000	826.948	53
Kanpokoak	884.530	1.073.614	21	300.000	200.000	-33
Guztira	27.641.510	27.165.861	-2	7.881.966	11.508.15	46

Transferentzia arruntengatikoko gastuak 27,17 milioikoak izan ziren. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 98koa izan zen. Onuradun nagusien artean, transferentzia arruntengatikokoaren ehuneko 41 Haur Eskolak erakunde autonomoari eman zaizkio, eta ehuneko 14 Iruñerriko Mankomunitateari, hiri-garraiorako.

Nabarmentzen dugu ehuneko 20 jaitsi dela eskualdeko hiri-garraioa finantzatzeko aldera Iruñerriko Mankomunitateari eginiko ekarpena, horren zioa izaki, kontu orokorraren oroitidazkiak azaltzen duenez, mankomunitateak estatu-laguntzen atzerapenak jaso zituela.

Kapital-transferentzien gastuak 11,51 milioikoak izan ziren. Behin betiko kredituen ehuneko 71ko heinean exekutatu ziren. Onuradun nagusien artean, ehuneko 28 Iruña Biziberritzen udal-sozietate publikoari helarazi zitzaion; ehuneko 23, Haur Eskolak erakunde autonomoari, eta beste ehuneko 23, Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari.

Sortzapena 2023an izan zuten kapital-transferentzien aldean, ehuneko 46 egin zuten gora, horren zio nagusia izanik Haur Eskolak erakunde autonomoarentzako ekarpenaren gehikuntza, eskoletako inbertsioak finantzatzekoa, bai eta Iruña Biziberritzen udal-sozietatearentzakoarena ere, etxebizitza-alorreko jarduketa-plana finantzatzea xede zuena.

2024ko martxoaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen udalaren 2024ko ekitaldirako Dirulaguntza Plan Estrategikoa onestea, 12 ildo estrategikotan banaturiko 10.740.757 euroko kopurua zuena.

Transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitaleko hauek berrikusi ditugu:

Transferentzia arruntak

Entitatea	Transferentzia arruntaren finantzaketa	Gastua
Iruñerriko Mankomunitatea	Eskualdeko hiri-garraioa 2024	3.845.500
EELZ udal-sozietatea	Sozietatearen gastuak	800.500

Finantzaketa	Emateko prozedura	Onuradunak	Deitutako zenbatekoa	Gastua
Krisi-egoeretan dauden edo infraetxe nahiz etxebizitza desegoki batean bizi diren familientzako errentamendua	Banakako ebaluazioa	92	450.000	211.316
Turismo-sustapen eta -dinamizazioko jarduerak	Norgehiagokaraubidea	6	50.000	50.000

Kapital-transferentziak

Entitatea	Kapital-transferentziaren finantzaketa	Gastua
Haur Eskolak erakunde autonomoa	Inbertsioak	2.674.200
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	Inbertsioak	2.672.343
Comiruna udal-sozietatea	Udal-merkatuetan egindako inbertsioak	100.000
Iruña Biziberritzen udal-sozietatea	Alde Zaharreko etxebizitzetarako planeko maileguaren amortizazioa	771.429
	Inbertsioak	2.500.000

Zehazturiko laginen berrikuspenetik honako konklusio hauek atera dira:

- Oro har, aztertutako dirulaguntzen ematea eta kudeaketa araudiak ezarritakoaren arabera izapidetu dira, eta gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaileak ikuskatuta, ordainduta eta zuzen kontabilizatuta daude.

- 2024ko ekitaldian udalak onuradunei zegokienez egin zuen dirulaguntzen kontrol finantzarioa, eta lan hori egiteko, auditoretza-enpresa pribatu bat kontratatu zuen. Kontrol finantzarioko lanak izan ziren 2023ko hiru dirulaguntza-deialdi berrikustea.

Transferentzia arruntak

- EELZ udal-sozietatea 2024ko urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuraren erabakiz desegin zen, eta urte horretako martxoaren 31n amaitu zuen bere jarduna. Udalaren ekarpena, jasota dagoena programa-kontratuan eta 2024ko otsailean sozietatearen bi hilabeteko jardunerako onetsitako sozietate-aurrekontuan, 420.500 eurokoa zen (ehuneko 93 langileria-gastuei dagokie). Martxoan, maiztzean eta abuztuan aldatua izan zen programa-kontratua, EELZ enpresaren finantzaketari guztira 380.000 euro gehitzeko, gastu desberdinak finantzatze aldera, hala nola 55 urte baino gehiagoko-entzako Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenetik eratorritakoak, aholkularitza, merkataritza-erregistroaren gastuak eta abar.

Programa-kontratuan kontrakoa ezartzen bada ere, EELZ enpresak ez zuen jasotako kopuruen behin-behineko likidaziorik aurkeztu, ez eta udalak 2024an zehar helarazi zizkion funtsen justifikaziorako behin betiko likidaziorik ere.

- Krisi-egoeretan edo infraetxe nahiz etxebizitza desegoki batean bizi diren familientzako errentamendua finantzatzeko dirulaguntzetan ez da ageri kasu guztietan betetzen direnik dirulaguntza-ren arautze-oinarrietan ezarritako honako betekizun hauek:

- Kasuan diharduen profesionalak, Balorazio Batzorde Teknikoko teknikari batek eta dirulaguntza-ren onuradunak konpromiso-akordio bat sinatzea.
- Familien gizarteratze- eta hezkuntzaratze-prozesuaren segimendua eta ebaluazioa.
- Aipatu akordioaren helburuen betetzearen gaineko hiru hilean behingo egiaztapena.

Dirulaguntza horiek deitzeko onetsita zegoen 450.000 euroko kreditua 100.000 euroan murriztu zen. Aldaketa hori ez zen argitaratu, deialdiaren beraren argitaratze-baldintza berberak bete behar zituen arren.

Onuradunak aurkeztu beharrekoak diren frogagiriak sartuta daude espedientearen parte ez diren karpeta batzuetan.

Kapital-transferentziak

- Haur Eskolak erakunde autonomoari udalak eginiko kapital-transferentziaren parte bat Sustapertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren abaroan foru administrazioak udalarentzat erabakitako 780.000 euroko dirulaguntza baten bitartez finantzatzen da. Dirulaguntza horren ematea erabaki zen Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak 2024ko ekainaren 7an emandako Ebazpen baten bitartez, eta diru-helarazpena justifikazioa egin ondoren gauzatuko da, zeina 2024ko urriaren 18a baino lehenago egin beharrekoa baitzen. 2025eko irailaren 30ean, udalak kobratu gabe dauka dirulaguntza.

- Udalak Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari 2024an zortzi inbertsio finantzatzeko konprometitutako ekarpena 2.672.343 eurokoa izan zen. 2025eko irailaren 30ean, ekarpenaren osotasunak ordainkizun dirau, erakunde autonomoak ez duelako exekutaturiko inbertsioen justifikaziorik aurkeztu.

- Udalak 100.000 euroko ekarpena erabaki zuen Comiruña udal-sozietatearentzat, Iruñeko udal-merkatuetan egin beharreko zaharberritzeak finantzatzeko. Comiruña 2024ko irailean kobratu zuen ekarpena, eta ez zuen gastu exekutatuak justifikatu, horretarako epemuga 2025eko ekainaren 30a izanik. Alkateak 2025eko urriaren 7an jaulkitako ebazpen baten bitartez 2025eko abenduaren 31ra arte luzatu zen justifikazio-epea, baieztatu erantzuna emanik udal-sozietateak 2025eko ekainaren 4an aurkeztu zuen eskabideari, zeinean proiektu-lizitazioetako eta obra-exekuzioetako atzerapenak aipatzen baitzituen.

Bete egin da 2023ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazioan adierazitako gomendioa, zeina baitzen *udal-taldeendako zuzkidura ekonomikoei buruzko informazioa argitaratua izan zedila udalaren webguneko gardentasun-atarian*.

Indarrean jarraitzen dute 2023ko ekitaldian eta aurrekoetan egindako gomendioak:

- *Dirulaguntzen deialdietan adierazleak zehaztea eta helburuen betetze-maila ebaluatzea, dirulaguntzen plan estrategikoak ezartzen duen bezala.*

- *3.000 eurotik gorako dirulaguntzen ematea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

- *Udal-taldearen eta alderdi politikoaren arteko arautze-hitzarmenen urteroko oroitidazkietan sartzea alderdi politikoak udal-taldearen diru-ekarpenen kargura eginiko gastuen frogagiriak.*

Hona 2024an egin dugun fiskalizazioan oinarriturik gomendatzen duguna:

• *Krisi-egoeretan dauden edo infraetxe nahiz etxebizitza desegoki batean bizi diren familientzako errentamendua finantzatzeko dirulaguntzen izapidetzearen fase desberdinetan eskatzen den dokumentazio guztia espedientean sartua izatea.*

- *Emandako dirulaguntzen bitartez finantzaturiko jarduketak epe barruan justifikatzea.*

5.2.6 Inbertsioak

2024ko inbertsioak 36,76 milioioak izan dira. 27,64 milioiko aurrekontu-aldaketak onetsi ziren, hasierako kredituen ehuneko 133. Aldaketa horiek batez ere dira diruzaintzako gerakinaren kargura finantzaturiko inbertsioen ondoriozkoak. Exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 76koa izan zen.

2024an exekutaturiko inbertsioak 2023ko ekitaldikoak baino ehuneko 84 gehiagokoak izan ziren.

2024an exekutaturiko inbertsio guztien ehuneko 54 honako sei obra hauei dagokie:

Deskribapena	ABG, 2024
II. Zabalguneko Civivoxa	6.858.925
Oinezkoentzako eta ziklistentzako ibilbideetako obrak	6.512.608
Buztintxuriko kiroldegia	2.340.896
S. Pedro taldeko etxebizitzaren zaharberritzea	1.753.220
Animsari egindako enkarguak	1.556.461
Pio XII.a hobetzeko obrak	749.612
Guztira	19.771.722

Honako obra-kontratu hauen esleipena berrikusi dugu:

Kontratua	Esleipen-prozedura	Lizitatzailer kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	% Beherapena
Txantreako hornidura- eta saneamendu-sareak, IV. fasea	Irekia	2	7.653.606	6.566.794	14
Esparru-akordioa: mugikortasun eta jasangarritasunaren hobekuntza					11,02
<u>Esparru-akordiotik eratorritako kontratuak:</u>			1.574.248	1.571.771	0,14
-Landabengo bizikleta-ibilbidea			1.878.480	1.875.314	0,15
-Pio XII.eko eraberritzea					

Oro har, berrikusitako obra-kontratuen lizitazio eta esleipena kontratu-legediari jarraikiz izapidetu dira, jarraian azalduko ditugun akatsak salbuespen direla.

- 2024an esleitu zen mugikortasun eta jasangarritasunerako esparru-akordiotik eratorritako kontratuak aztertu ditugu, eta analisi hori 2025eko ekitaldira ere hedatu dugu.

2025eko irailaren 30ean, esparru-akordiotik eratorritako 13 kontratu esleituta zeuden hautaturiko hiru enpresetako biri; izan ere, haietako batek uko egin zion esleipen-prozeduran parte hartzeari.

Esleituriko kontratuak honela banatzen dira bi enpresen artean:

Esleipen-hartzaileak	Prozedura	Kontratu-kop.	Esleipenaren zenbatekoa	Aldaketa	Guztira
1. enpresa	Zuzena	8	1.390.776	0	1.390.776
1. enpresa	Eskaintza ekonomikoa	2	2.121.755	169.771	2.291.526
2. enpresa	Eskaintza ekonomikoa	3	2.843.903	549.944	3.393.846
Guztira		13	6.356.434*	719.715	7.076.148*

*Zenbateko horietatik, 2025ekoak dira 2.028.073

Pleguan ezartzen denez, oinarritzko lizitazio-aurrekontua 300.000 euro baino gutxiagokoa daukaten kontratu eratorriak lehentasun-hurrenkeran lehen tokian dagoen enpresa hautatuari esleitu zaizkio.

Esparru-akordiotik eratorritako kontratuak ehuneko 52an eta ehuneko 48an esleitu zaizkie hautaturiko bi enpresetako bakoitzari.

Esparru-akordiotik eratorritako bost kontratuen lizitazioan bi enpresek aurkeztu zituzten 300.000 euro baino gehiagoko eskaintza ekonomikoa honako hauek izan ziren:

Esparru-akordiotik eratorritako kontratuen zenbakia	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren baja	
		1. enpresa	2. enpresa
1. Landaben	1.571.771	0,14 %	0
6. Pio XII.a	1.875.314	0	0,15 %
8. Zilbeti Monasterioa	461.904	Ez du eskaintzarik aurkeztu	0
9. Ospitalegunea	549.984	0	Ez du eskaintzarik aurkeztu
10. Foruen plaza	506.685	Ez du eskaintzarik aurkeztu	0

Hiru kontratu enpresa bati esleitu zitzaizkion, eta bi, besteari. Kontratuetako hiru ezein beherapenik gabe esleitu ziren, eta beste biak, ehuneko 0,14 eta 0,15eko beherapenekin. Esleipen-hartzaile suertatu ez zen enpresak ez zuen inolako beherapenik eskaini, edo ez zuen eskaintzarik aurkeztu.

- Esparru-akordiotik eratorritako bi kontratu berrikusietan, Landabengo ibilbide ziklistan eta Pio XII.eko obran, ez dira Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu Kontratazio Mahaiaren aktak. Horien ordez, esparru-akordioaren esleipenari dagozkion aktak argitaratu dira.

Aipatu bi kontratuetan, ez da egiaztatu ezen enpresa esleipen-hartzaileak kontratu-exekuziora bideratu duenik baldintza teknikoaren pleguan ezarritako langile-taldea.

- Txantreako hornidura- eta saneamendu-sarearen berrurbanizatze eta berritzearen esleipenari eta mugikortasun eta jasangarritasuna hobetzeko esparru-akordioaren esleipenari buruz, honako hau azpimarratzen dugu:

Esleipen-azpiirizpide kualitatiboak modu generikoan daude adierazita pleguan, eta haien haztapena ez da zehazten.

Kontratu-exekuziorako baldintza berezi gisa ezarri zen ezen paper birziklatua erabili behar zela ezinbestean inprimatu beharrekoa den dokumentaziorako. Gure ustez, baldintza horrek ez du loturarik kontratuaren xedearekin.

Honako kontratu hauen exekuzioa berrikusi dugu:

Kontratua	Esleipenaren data	Zenbatekoa Esleipena	Kontratu-aldaketak 2024/12/31ra arte	ABG 2024	ABG guztira 2024-12-31
II. Zabalgune ko Civivoxa	2022-10-10	9.707.551	299.519	6.858.925	9.979.197
Buztintxuriko kiroldegia	2022-06-27	8.190.232	328.256	2.340.896	8.600.957
Landabengo bizikleta-ibilbidea	2024-03-27	1.571.771	169.264	1.741.035	1.741.035
Pio XII.eko eraberritzea	2024-10-07	1.875.314	0	725.581	725.581
Labriteko ardatz jasangarria (Prezio-berrikuspena)				92.750	

Oro har, kontratuaren aldaketak kontratu-legeriaren arabera izapidetu dira, eta gastuak onartuta, kontu-hartzailetzak ikuskatuta, justifikatuta, behar bezala kontabilizatuta eta epean ordainduta daude, jarraian adieraziko ditugun akatsei dagokienez izan ezik:

- II. Zabalguneko Civivoxaren obraren esleipen-hartzaile zen enpresak 2025eko azaroan frogatu zuen gizarte- eta ingurumen-irizpideen betetzea, gure fiskalizazioaren kariaz.
- “Labriteko ardatz jasangarria” obran, kontratuko prezioen salbuespenezko berrikuspena atzerapen nabarmenez onetsi zen. Horrela, 2022ko abenduaren 23an eskatu zuen berrikuspen hori kontratistak, eta tokiko gobernu-batzarrak 2024ko uztailaren 4an onetsi zuen.

Hau gomendatzen dugu:

- *Pleguetan xehetasun eta zehaztasunez adieraz bitez esleipen-irizpide kualitatiboak eta horien balorazioa.*
- *Kontratuaren xedeari loturiko exekuzio-baldintza bereziak ezar bitez, eta haiek betetzen direla egiaztatu bedi.*
- *Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea Kontratazio Mahaiak kontratuen esleipena dela eta eginiko bileren aktak.*

5.2.7 Tributuak

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak 93,39 milioiokoak izan ziren 2024an. Horietatik, ehuneko 70 zergen bitartezkoak dira, eta ehuneko 30, tasen bitartezkoak.

Honako taula honetan jasota dator tributu-xehakapena eta horrek aurreko ekitaldiarekin duen konparazioa:

Tributuak	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%)
Zuzeneko zergak	57.584.982	54.592.177	-5
Lurralde-kontribuzioa	31.301.365	31.741.664	1
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	10.807.724	10.786.546	0
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	5.912.463	7.299.138	23
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	9.563.430*	4.764.829	-50
Zeharkako zergak	11.132.731	10.792.982	-3
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak	11.132.731	10.792.982	-3
Tasak	27.872.905	28.008.106	0
Tributuak, guztira	96.590.618	93.393.265	-3

*Barne hartzen ditu 5.210.998, Foru Administrazioak zerga-salbuespenagatik eginiko ekarpenenak.

Ekonomia-jardueren gaineko zergak (EJZ) izandako ehuneko 50eko beherapenaren arrazoia hau da: 2023an, foru administrazioak zerga-salbuespenagatik eginiko ekarpenak oker kontabilizatu ziren, EJZrekin batera. Ekarpen horiek ez baditugu kontuan hartzen, zeinak 2024an Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako parte-hartzearen diru-sarrera gisa kontabilizatuak izan baitziren, EJZk ehuneko 9ko gorakada izan du.

Udalak aplikatzen dituen zerga-tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen tartearen parte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikusten ahal den bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren kontribuzioa	0,3970	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,80	
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ)	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	23	8-25
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	5	2-5

2024an, udalak landa-ondasunei eta hiri-ondasunei tasa desberdinak aplikatzen jarraitzen zuen.

2024ko ekainaren 24an, udalak hasierako onespena eman zion Iruñeko udal-mugartearen balorazio osorako txostenaren proiektuari. Nafarroako Foru Ogasuneko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuko zuzendariaren irailaren 13ko Ebazpenaren bidez (2024ko irailaren 30eko NAO n argitaratu zen), balorazio-txostena onetsi zen. Txostenaren indarraldia argitaratze-egun horretatik 20 egun natural iragatean hasi zen.

• Ogasuneko eta Kontratazio Publikoko Zuzendaritza arduradunak 2024ko irailaren 19an ebatzi zuen “Udal Tributua Ikuskatzeko 2024ko Plana” onestea. Plan hori gidatzen duten irizpideak 2024ko urriaren 8ko NAO n argitaratu ziren.

2024an egindako zerga-ikuskapenaren ondorioz, 2,39 milioi egiten duten eskubideak aitortu dira, eta horietatik kobratuta zeuden, 2024ko abenduaren 31n, ehuneko 90; hots, 2,14 milioi. Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Ordainagiri kopurua 2023	Ordainagiri kopurua 2024	Aitorturiko eskubideak 2023	Aitorturiko eskubideak 2024
EIOZ	283	255	2.201.639	1.842.163
EJZ	13	0	110.966	0
Bide publikoaren okupazio-tasa	128	126	510.392	332.025
Hirigintza-lizentziaren tasa	258	242	219.515	198.888
Tasa (% 1,5)	58	3	339.628	13.361
Berandutze eta geroratzeeen interesa	60	10	18.570	1.942
Guztira	800	636	3.400.710	2.388.379

Ez da egin EJZren gaineko ikuskapen-ekintzarik, Tributu Ikuskapeneko Planean lehentasunezko arretako tributuen artean sartu zen arren.

Zerga-ikuskapenak direla-eta aitortutako eskubideak 2,39 milioi izan dira, eta horietatik 1,84 milioi EIOZri dagozkio. Zenbateko hori kontzeptu horrengatik aitortutako eskubide guztien ehuneko 17 da. EIOZen gaineko ikuskapen-jarduketak honako hauek dira: egindako eraikuntza, instalazio eta obren benetako kostua egiaztatzea eta zergaren behin betiko likidazioa egitea.

Aurreko ekitaldietan eginiko gomendio hauek bete ditu udalak:

• *EJZren salbuespenak 4. kapituluaren kontabilizatzeari, transferentziengatik diru-sarrerari buruzkoan, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzearen kontzeptu ekonomikoan.*

Aurreko ekitaldietan egindako gomendio hauei eusten diegu:

- *Kostuen azterketa egiteko prozesuarekin jarraitzea, behin betiko ezartzeko.*
- *Prozedura orokorrak onartzea eta ezartzea, enpresa esleipen-hartzaileak bide publikoko aparkatze arautuaren tasa dela-eta aitortu eta udaletxean sartzen duen diru-bilketa kontrolatzeko, plataforma informatikoaren datuak eta enpresaren aitorpenak aldizka bateratuz.*
- *Ikuskapenaren jarduketak eta emaitzak jakinaraztea tokiko jabari publikoko lurzoruen, hegalaren eta lurpearen aprobetxamendu bereziengatik tasa kudeatzen duen udal-alorrari.*

5.2.8 Prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Prezio publikoek eta bestelako diru-sarrerek, 3. kapituluan aitortuak eta tributu-izaerarik gabe-koak, 16,82 milioi egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptuak	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%a)
Prezio publikoak	1.252.746	1.474.610	18
Aurrekontu itxietako itzulketak	483.106	376.551	-22
Beste diru-sarrerak batzuk	15.017.218	14.972.155	-0,3
Prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira	16.753.070	16.823.316	0,5

“Bestelako diru-sarrerak” kontzeptuan 1.645.038 euroko eskubideak aitortu dira, Labriteko zaldainaren eraikuntzaren akatsengatik eskaturiko kalte-ordainari dagozkionak. Eskaturiko kopuru guztitik, 74.315 euro kobratu dira, 297.258 euro bide exekutibotik kudeatzen dira, eta gainerakoa etenik dago, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu delako.

Isunak eta zehapenak, “bestelako diru-sarrerak” kontzeptuan kontabilizatuak, 10,58 milioioak izan ziren; hots, 2023an baino ehuneko 4 gutxiagokoak. Zenbateko horretatik, borondatezko epean 4,44 milioi kobratu dira; hots, ehuneko 42.

2024an, guztira 129.993 isun izapidetu ziren; ehuneko 46, eremu urdinean eta sarbide kontrolatuko eremuetan aparkatzeagatik; ehuneko 25, seinaleengatik, eta ehuneko 24, abiaduragatik, arrazoi nagusien artean.

Isunak eta zehapenak kudeatzeko prozedura berrikusi dugu, haiek ezartzen direnetik harik eta haien diru-bilketa egiterainokoa, eta honako ahulezia hauek detektatu ditugu:

- Datu-bilketan makinek eginiko okerrengatik, ezin izan dira izapidetu 117.680 euroko kopurua egiterainoko isunak.

- Isunen ehuneko 90 kontrol-sistema automatizatuetatik (kamerak eta radarrak, besteak beste) eta aparkaleku arautua kudeatzen duen enpresarengandik eskuraturiko informazioarekin sorturiko fitxategien bitartez izapidetzen da. Fitxategi horiek erabiltzaile-talde bat sartzen ahal den karpeta batean gordetzen dira, eta automatikoki erregistratuak izan aurretik aldatuak izan daitezke, espediente-kudeaketako eta diru-bilketako aplikazio informatikoan.

- Udaltzaingoak izapideturiko isunak, 2024ko isun guztien ehuneko hamar, eskuz kargatzen dira aplikazio informatikoan.

- Aparkaldi mugatuko gunean tiketik gabe aparkatzeagatik isunak, modu bateratuan izapide-tzen direnean ibilgailua erretiratzeagatik garabi-tasarekin, bikoiztasunez erregistratzen dira aplikazio informatikoan, eta gero deuseztatu egiten dira.

- Espedienteen ehuneko 20an isunaren titularraren aldaketa izapidetu behar izan da, ibilgailu-aren gidaria eta haren jabea pertsona desberdinak izateagatik. Titular-aldaketa egitea beharrezkoa da arau-hausleari isuna denboraz eta formaz jakinarazteko. Prozesu hori ez dago automatizatuta, eta kudeatzaileek euskarri fisikoan inprimatzen dituzte gidariak egoitza elektronikokoan ematen dituen datuak, eta isun-aplikazioan erregistratzen dituzte. Prozedura horrek atzerapenak eragiten ditu titulartasun-aldaketaren izapidetzean, eta horrenbestez arriskuan jartzen da zehapena jakinarazteko ezarritako epearen betetzea.

Hau gomendatzen dugu:

- Zuzendu bitez isun-bilketako makinetan gertaturiko okerrak.
- Murritz bedi isun-fitxategietarako sarbidea, eta horiek aplikazio informatikoan prozedura automatizatuen bidez karga bitez, fitxategietarako sarbidea eta haien aldaketa eragotziko dutenak.
- Aurrerapausoak eman bitez Udaltzaingoak jarritako isunen izapidetzearen automatizazioan.
- Sinplifika bedi isunen eta garabi bitartezko ibilgailu-erretiratzeagatiko tasaren izapidetze bateratua, halatan ekidite aldera espediente-bikoizketa eta horiek gero deuseztatuak izatea.
- Egoitza elektronikoan izapide bat ezar bedi, isunen titulartasun-aldaketaren automatizazioa ahalbidetuko duena.

5.2.9 Jasotako transferentzia arruntak

Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak 129,05 milioikoak izan ziren. Ehuneko 77 Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta duten Parte-hartze Funtsari dagokio, zeina 99,24 milioikoa baita; hots, aurreko ekitaldian baino ehuneko hamar gehiagokoa. Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptuak	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%a)
Estatuko Administrazio Orokorrarengandik	739.057	687.555	-7
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrarengandik	117.278.878	127.059.842	8*
Suhiltzaileen montepiorako ekarpena	327.381	232.748	-29
Europar Batasunarengandik	1.166.244	1.068.824	-8
	119.511.560	129.048.969	8

*Aldea ehuneko 4koa litzateke, baldin 2023an 5.210.998 euroko ekarpena sartzen badugu, EJZren konpentsazioagatikoa, 2023an EJZrekin batera kontabilizatua.

2024an, udalak transferentzia arrunt gisa erregistratu zituen EJZren konpentsazioagatiko diru-sarrerak, Ganbera honek gomendatu zuen bezala. Diru-sarrerek 5,21 milioi egin zuten 2024an.

Egiaztatu dugu ezen, oro har, Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako eta haiengandik jasotako transferentzia arruntak zuzen kontabilizatu direla.

5.2.10 Inbertsio errealeen besterentzea

Inbertsio errealak besterentzeagatiko diru-sarrerak 10,92 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik ehuneko 98 orube-salmentei dagozkie. 2023an, orube-salmentagatiko diru-sarrerek 34,33 milioi egin zuten.

Honako lurzati hauen besterentzea aztertu dugu:

Xedea	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Lizitatzaille-kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Arrosadiko lurzatia	Enkante publikoa	5.699.506	7	9.302.140
Lezkairuko lurzatia	Zuzeneko besterentzea		1	372.509

Berrikusitako lurzatiak besterentzeko prozedura kasuko legediari jarraikiz izapidetu da.

Lezkairuko lurzatia ez zen 2023ko ekitaldian eginiko enkantean esleitu, eta 2024an enkanteko lizitazio-prezio berean saldu zen; beraz, lurzatiaren zuzeneko besterentzeari dagokionez zuzenbidez eskatzen diren betekizunak bete egin ziren.

Lurzati-salmentagatiko diru-sarrerak egokiro jaso dira baliabide atxikien egoera-orrian eta, beraz, diruzaintzako gerakinean.

5.2.11 Informazio-sistemak

Udaleko informazio-teknologiaren kudeatzailea Animsa sozietate publikoa da. Urtero, udalak sozietate horri enkargatzen dio informatika-zerbitzu arruntaren ematea eta ekipamendu eta softwarearen erosketak nahiz aplikazio informatikoen garapena.

2024ko ekitaldian, Animsak lau milioi fakturatu dizkio udalari informatika-zerbitzu arruntengatik, eta 1,56, ekipamenduko inbertsioengatik eta aplikazio informatikoen garapenarengatik.

Udalak ez du udal-informatikaren arduradunik.

5.3 Menpeko erakundeak

Udalaren menpeko erakundeek kontuen gaineko finantza-auditoretza eta legezketasunari buruzkoa ere badute, honako iritzi honekin:

Erakunde autonomoa	Finantza-auditoretza	Legezkotasun-auditoretza
Haur Eskolak erakunde autonomoa	Aldekoa	Aldekoa, salbuespenekin
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	Aldekoa	Aldekoa
Comiruña SA	Aldekoa	Aldekoa
Pamplona Centro Histórico SA sozietatea	Aldekoa	Aldekoa
Animsa SA	Aldekoa	Aldekoa
Mercairuña SA	Aldekoa	Aldekoa
EELZ* sozietatea	Aldekoa	
Gayarre Antzokia fundazioa	Aldekoa	Aldekoa

*2025eko azaroaren 10ean aurkezturiko auditoretza.

Legezkotasun-auditoretzak berrikusten du aurrekontu-, kontratazio- eta langileria-alorretako betetzea, salbu eta Animsa eta Mercairuña sozietateetan, zeinetan ez baita berrikusten langileriaren alorreko legezketasun-betetzea.

Haur Eskoletako legezketasun-auditoretzaren salbuespena munta txikiko kontratu gisa oker izapidetutako kontratuei buruzkoa da, horien balio zenbatetsiak gainditu egiten baitzuen Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean esleipen-araubide berezi horren bitartez izapidetuak izateko ezartzen den muga.

Gomendatzen dugu langileria-alorreko legezketasunaren betetzea ikuska dadila Animsa eta Mercairuña udal-sozietateetan.

5.3.1 Iruñeko Udalaren Haur Eskolak

Haur Eskolak erakunde autonomoaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzio-egoera eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa honako hau da:

Diru-sarrerak

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	AEG 2024	AEG 2023	% Aldaketa
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	805.000	0	805.000	787.224	827.383	-5
4. Transferentzia arruntak	11.150.000	0	11.150.000	11.150.000	10.909.327	2
7. Kapital-transferentziak	1.958.000	716.200	2.674.200	2.704.566	850.000	218
8. Finantza-aktiboak	0	550.000	550.000	0	0	
Guztira	13.913.000	1.266.200	15.179.200	14.641.790	12.586.710	16

Gastuak

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	ABG 2024	ABG 2023	% Aldaketa
1. Langileria	10.352.411	150.000	10.502.411	10.342.697	10.200.639	1
2. Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	1.602.589	0	1.602.589	1.172.652	1.257.275	-7
6. Inbertsio errealak	1.958.000	1.116.200	3.074.200	2.759.956	830.199	232
Guztira	13.913.000	1.266.200	15.179.200	14.275.305	12.288.113	16

2024an aitortutako eskubideek 14,64 milioi egin zuten, eta horien exekuzio-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 96koa izan zen.

Diru-sarrera guztien ehuneko 76 udalaren transferentzia arruntei dagokie.

2024an aitortutako betebeharrak 2023ko ekitaldikoak baino ehuneko 16 gehiagokoak izan ziren, batez ere gora egin zutelako kapital-transferentziek, ehuneko 218.

2024an aitortutako betebeharrak 14,27 milioi egiten dute, behin betiko kredituen ehuneko 94. Ekitaldian zehar, 1,27 milioi euroko aurrekontu-aldaketak izapidetu ziren; hots, hasierako kredituen ehuneko 9.

Betebehar guztien ehuneko 72 langileria-gastuei dagokie; ehuneko 19, inbertsioei, eta ehuneko 8, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei.

2024ko ekitaldiko gastuak 2023an aitortutakoak baino ehuneko 16 handiagoak izan ziren, batez ere inbertsioetako gastuak ehuneko 232 igo zirelako, inbertsio horiek gehienbat Donibane haur eskolan egin zirelarik.

Langileria-gastuak

Haur Eskolak erakunde autonomoaren langileria-gastuak 10,34 milioikoak izan ziren; 2023an baino ehuneko 1 gutxiagokoak.

287 langileri maiatzean eginiko ordainketen ehuneko 82 berrikusi dugu (oinarrizko soldata, osagarriak, antzinasuna eta gradua); guztira, 403.856 euro egiten dute. Hauexek dira ateratako konklusioak:

- Oro har, ordaindutako eta kontabilizatutako ordainsari-kontzeptuak plantillan sartutako lanpostuei dagozkie, eta bat datoz araudiarekin eta enpleguaren inguruabar administratibo eta pertsonalekin.

Dena den, aldeak aurkitu ditugu, ez esanguratsuak, bost langileko lagin batetik bi langileri ordaindu-tako antzinasun-ordainsarian; izan ere, aitorturiko zerbitzuen arabera legokiekeena baino kopuru txiki-agoa pagatzen zaie.

- Nomina-ordainketa baimentzeko beharrezko sinadura bakarra kontu-hartzailearen sinadura da.

Plantilla organikoa

2024ko apirilaren 11n, udalaren Osoko Bilkurak hasierako onespena eman zion Haur Eskolak era-kunde autonomoaren 2024ko plantilla organikoari, eta 2024ko uztailaren 4an onetsi zuen behin betiko, 42 alegazio ezetsi ondoren. 2024ko abuztuaren 12ko NAO n argitaratu zen.

2024ko plantilla organikoak 245 lanpostu jasotzen ditu, 2023ko berberak, honako araubide honekin:

Araubidea	2023	2024	Aldea
Behin-behinekoak	2	2	0
Funtzionarioak	133	137	4
Lan-kontratudun finkoak	45	40	-5
Lanaldi partzialeko lan-kontratudunak	65	66	1
Guztira	245	245	0

Lanpostu guztien ehuneko 64, hau da, 158, hezitzaileak dira.

Lanpostu guztietatik, ehuneko 45, hau da, 110, hutsik daude. 2024-2025eko ikasturtean eginiko hezi-tzaile-kontratazioak ez dira plantillako plaza hutsetara esleitzen, eta horrek oztopatu egiten du plazaren egoeraren ikuskapena egitea.

Aldibaterakotasun-indize handia, ehuneko 45ekoa, nabarmentzen dugu.

Enplegu-eskaintza publikoa

2024an, Haur Eskolak erakunde autonomoak ez zuen enplegu-eskaintza publikorik onetsi, eta 2022 eta 2023ko ekitaldietan onetsitako enplegu-eskaintza publikoetako plazak ere, oraindik deitu gabe zeu-denak, ez zituen deitu.

2024ko abenduaren 31n, honako hau zen lehenagoko ekitaldietan onetsitako enplegu-eskaintza pu-blikoen egoera:

Lanpostuak	2022	2023	2024
Enplegu-eskaintza publikoa	101	5	0
Deitutakoak	73	0	0
Gauzatuak	73	0	0

Kontratazioa

Munta txikiko kontratuak ez ziren Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu.

Beren horretan eusten zaie aurreko ekitaldietan eginiko gomendioei:

- *Plantilla organikoa langile-lanpostuak egituratzeko eta kudeatzeko tresna gisa erabil bedi, eta langile-kontratazioak plantillako dagozkien lanpostuei lotzea.*
- *2022 eta 2023ko ekitaldietan onetsitako enplegu-eskaintza publikoetan sartutako plazak dei bitez, eta onets bitez enplegu-eskaintza publiko berriak, eta dei bitez plazak, langileriaren aldiba-terakotasuna murrizte aldera.*

Hona 2024an egin dugun fiskalizazioan oinarriturik gomendatzen duguna:

- *Nomina ordaintzeko, exiji bedi sinadura mankomunatua.*

- *Aldizkakotasunez berrikus bitez langile guztien antzintasun-datak.*

5.3.2 Hirigintzako Gerentzia

Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzio-egoera eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa honako hau da:

Diru-sarrerak

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	AEG 2024	AEG 2023	% Aldaketa
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	668.600	0	668.600	229.493	44.127	420
4. Transferentzia arruntak	2.000.000	-150.000	1.850.000	1.675.179	1.698.139	-1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	30.000	0	30.000	0	0	
7. Kapital-transferentziak	7.524.000	505.000	8.029.000	2.902.893	4.451.691	-35
8. Finantza-aktiboak	0	3.029.347	3.029.347	0	0	
Guztira	10.222.600	3.384.347	13.606.947	4.807.565	6.193.957	-22

Gastuak

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	ABG, 2024	ABG, 2023	Aldea (%)
1. Langileria	1.744.000	0	1.744.000	1.514.138	1.572.719	-4
2. Ondasun eta zerbitzue-tako gastu arruntak	878.600	-150.000	728.600	166.891	236.514	-29
3. Gastu finantzarioak	75.000	0	75.000	27.834	82.471	-66
4. Transferentzia arruntak	1.000	0	1.000	0	0	
6. Inbertsio errealak	6.248.000	3.534.347	9.782.347	6.211.368	7.416.758	-16
7. Kapital-transferentziak	1.000	0	1.000	0		
9. Finantza-pasiboak	1.275.000	0	1.275.000	1.275.000	1.700.000	-25
Guztira	10.222.600	3.384.347	13.606.947	9.195.231	11.008.462	-16

2024an aitortutako eskubideek 4,81 milioi egin zuten: behin betiko aurreikuspenen ehuneko 35.

Behin betiko aurreikuspenen ehuneko 45 baino ez zen exekutatu, aktibo finantzarioen kapituluaren sartutako diruzaintzako gerakina deskontatuta. Exekuzio apal horren zergati nagusia dira kapital-transferentziengatik eta urbanizazio-kuotengatik diru-sarrerak. Kontzeptu horiek kapital-transferentzien 7. kapituluaren daude kontabilizatuta, eta aurreikuspenen ehuneko 51n eta ehuneko 8an, hurrenez hurren, exekutatuta ziren.

Diru-sarrera guztien ehuneko 90 udalaren transferentziei dagokie.

2024ko ekitaldiko diru-sarrerak ehuneko 16 txikiagoak izan ziren 2023an aitortutakoak baino, batez ere kapital-transferentziek ehuneko 35 egin zutelako behera (udalaren transferentzia eta urbanizazio-kuotak).

Aitortutako betebeharrak 9,19 milioi egiten dute, behin betiko kredituen ehuneko 68. Gastu guztien ehuneko 68 inbertsioei dagokie; ehuneko 16, langileria-gastuei, eta ehuneko 14 pasibo finantzarioei, kapitulu aipagarrien artean. Aurrekontu-aldaketak hasierako aurrekontuaren ehuneko 33koak izan ziren.

2024ko ekitaldiko gastuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 16 txikiagoak izan ziren; batez ere, inbertsioak ehuneko 16 murriztu zirelako.

Langileria-gastuak

2024ko ekitaldian, Hirigintzako Gerentziako langileria-gastuak 1,51 milioioak izan ziren.

26 langileri maiatzean eginiko ordainketen ehuneko 92 berrikusi dugu (oinarrizko soldata, osagarriak, antzinasuna eta gradua); guztira, 84.672 euro egiten dute. Hauexek dira ateratako konklusioak:

- Oro har, ordaindutako eta kontabilizatutako ordainsari-kontzeptuak plantillan sartuta dauden lanpostuei dagozkie, eta bat datoz araudiarekin eta enpleguaren inguruabar administratibo eta pertsonalekin.

Nolanahi ere, egiaztatu dugu ezen 18 eta 23 urte bitarteko adina duten seme-alabengatiko familia-laguntzarengatiko ordainsariak ez direla enpleguaren nominan sartzen, eta urteko ordainaldi bakarrean ordaintzen direla, urtea mugaeguneratutakoan.

Graduagatiko ordainsaria oker pagatu zitzaizen bi langileri, eta horiei eskatu zaie oker kobraturiko kopurua itzul dezaten.

Ez da aurretiazko kontu-hartzerik egiten langileria-gastuen gainean.

Plantilla organikoa

2024ko maiatzaren 2an, udalaren Osoko Bilkurak behin betiko onespena eman zion 2024ko plantilla organikoari, zeina 2024ko maiatzaren 20ko NAO-n argitaratu baitzen. Postuen araubide juridikoa honako hau da:

Araubidea	2021*	2024
Behin-behinekoa	5	5
Funtzionarioak	28	28
Guztira	33	33

*Ez zen plantilla organikorik onetsi 2022. eta 2023. urteetarako.

Funtzionario-lanpostuen ehuneko 43 hutsik daude, eta horietatik, ehuneko 42 beteta daude, honako taula honetan adierazten den bezala:

Lanpostuak	2024
Plantillako lanpostuak	28
Beteta	16
Hutsik	12
Lanpostu hutsen %a guztizko lanpostu-kopuruaren gainean	43
Beteta dauden lanpostu hutsak	5
Beteta dauden lanpostu hutsen %a	42
Aldi baterako kontratazioa (%)	24

2024an, aldibaterakotasun-indizea ehuneko 24koa zen; hots, 2023an baino sei portzentaje-puntu gutxiagokoa, baina araudiak ezarritako ehuneko 8ko indizetik urrun.

Enplegu-eskaintza publikoa

Hirigintzako Gerentziako kontseiluak plaza baterako enplegu-eskaintza publikoa onetsi zuen 2024ko urriaren 30ean. Enplegu-eskaintza publikoa 2024ko azaroaren 21ean argitaratu zen NAOn.

2024ko abenduaren 31n honako hau zen 2022tik 2024ra bitartean onetsitako enplegu-eskaintza publikoen egoera:

Lanpostuak	2022	2023	2024
Enplegu-eskaintza publikoa	5	5	1
Deitutakoak	5	2	0
Gauzatuak	5	0	0

Errepikatu egiten dugu aurreko ekitaldietan adierazitako *gomendioa, hirigintza-poligono bukatuen itxi-era egin eta haien behin betiko likidazioari ekitearena.*

Hona 2024an egin dugun fiskalizazioan oinarriturik *gomendatzen* duguna:

- *Aurretiazko kontu-hartzea egin bedi langileria-gastuen gainean.*
- *Nominan jasoa izan bedi familia-laguntzaren ordainketa.*

ERANSKINA: “NEXT GENERATION EU” FUNTSEKIN 2021-2024KO ALDIAN FINANTZATUTAKO GASTUAK

Proiektuak	Diru-sarrerak			Gastuak 2021-2024
	Emakida- ren urtea	Emandako zenbatekoa	Eskubide aitor- tuak	
Hiri-agenda	2021	250.000	250.000	265.655
Jasangarritasun Turistikoko Plana	2021	5.492.500	5.492.500	2.315.416
Runa 2025 proiektua (birnaturalizazioa)	2021	2.596.607		686.655
Emisio gutxiko eremua	2021	6.330.426	6.330.426	8.930.293
Merkataritza aldeak	2021	1.909.151	1.909.151	1.869.806
Merkataritza-guneei laguntzea	2022	1.029.120	1.029.120	1.257.457
Miluzeko bidegorria	2022	704.801	704.801	864.749
Gizarte-zerbitzuen digitalizazioa	2022	161.430	161.430	203.616
Genero indarkeriari buruzko prestakuntza	2022	94.939	35.247	92.219
Auzoen linea	2022	1.355.628		
Toki administrazioaren modernizazioa eta digi- talizazioa	2022	758.000	739.695	743.868
OTC (komunitate energetikoak)	2022	260.000		13.980
Iruña askoz gehiago da	2022	784.000	784.000	816.053
Auna proiektua (Gizarte-zerbitzuak)	2022	404.668	404.668	421.796
Gizarte Historia Bakarra proiektua	2022	120.932	120.932	130.645
Espezializazio teknologikoko lurralde-sareak	2022	4.350.000	0	325.000
Disuasio-aparkalekuak	2023	993.207	993.207	21.659
Burlatako bidegorria	2023	4.082.328	4.082.328	3.779.661
Mutiloako bidegorria	2023	762.172	762.172	915.957
Klimatizazioa eta Elikagaien Bankua	2023	22.148		5.138
Donejakue Bidearen digitalizazioa	2023	176.500	176.500	
Gizarte-zerbitzuen digitalizazioa	2023	112.863	112.863	98.363
Bosquecillo kaleko oinezkoen ardatza	2023	819.954	819.954	2.070.317
Ingurune sentikorrek	2023	592.517	592.517	306.663
Donibane haur eskola	2023	780.000		1.958.000
Lezkairu haur eskola	2023	870.000	870.000	4.082.167
Mendebaldea haur eskola	2023	660.000	660.000	750.000
Labrit pilotalekua	2023	93.601	93.601	552.932
Azpiegitura ziklistak	2023	1.952.111	1.952.111	3.108.115
Efizientzia energetikoa hobetzea	2023	426.321	87.826	517.563
Energia-hobekuntza Aranzadin	2023	144.154		
Mugikortasuna	2023	2.005.007	2.005.007	2.076.821
Mendillorriko trinketa	2023	108.065	108.065	217.616
Ariketa fisikoa	2024	130.000		
Termikoetarako deialdiak	2024	872.149		
Ikuspegi dialogikoa	2024	123.282	123.282	16.863
Moves	ASKOTARI- KOAK	29.968	29.968	119.750
MOVES 2024/25	2024	478.800		221.168
Konecta proiektua	2024	78.175	78.175	81.876
NOE proiektua	2024	35.371	35.371	6.691
Turismo-helmuga adimentsuen turismo-sarea	2024	540.297		
Udaltzaingoaren transformadorea eta kargagu- neak	2024	231.000		
Guztira		43.722.192	31.544.918	39.844.528

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Azaroaren 26an, Kontuen Ganberako lehendakari Ignacio Cabeza del Salvador jaunak ebazpena eman zuen, zeinaren bidez «Iruñeko Udalaren kontu orokorra, 2024» behin-behineko fiskalizazio-txostena onesten baitzen, eta, Iruñeko Udalari helarazten baitzitzaion, azter zezan eta, egoki joz gero, alegazioak aurkez zitzaion, 2025eko abenduaren 4ra arte.

Txosten horrek ondorioztatzen duenez, gure ustez, gure txostenaren “Legezkotasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean deskribatu ditugun gaien eraginengatik ez bada, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Iruñeko Udalaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Legezkotasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria atalean honako hau esaten da: *Munta txikiko kontratu gisa izan dira oker tramitatuak hornidurak, segidako zerbitzu-emateak eta zenbait obra, zeinek 2024an 2,6 milioiko gastua eragin baitute udalean (...).*

“Gomendio garrantzitsuenak” atalean honako hau esaten da:

(...)

Udal-alor guztietako hornidura-, zerbitzu- eta obra-kontratazioko beharrianak planifikatzea eta prestazio jakin batzuk batera lizitatzearen efizientzia baloratzea.

(...)

Kontratu-lizitazioko prozedura egokia izapidetzea munta txikiko kontratueterako ezarrita dauden mugak gainditzen dituen balio zenbatetsia duten hornidura, zerbitzu eta obrentzat.

Gomendio horiei dagokienez, Iruñeko Udalari honako alegazio hauek adieraztea interesatzen zaio:

- Kontuen Ganberari jakinaraztea ezen, 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluari jarraikiz, **neurriak** hartu direla **plangintza hobetzeko** eta txostenaren 23 eta 24. orrialdeetan agertzen diren kontratueterako askotako **lizitazio-prozedurak izapidetzeko**.

Zehazki,

Udal-eraikinak garbitzeko kontratua.

Ettxerik gabeko pertsonentzako eta lagun egiteko zentroa kudeatzeko kontratua, zeinak barne hartzen baitu hotel-postuen kudeaketa.

Udalaren kaleen zoladura eta espazio publikoak mantendu eta kudeatzeko kontratua.

Hiri-altzarien eta bide publikoan kokaturiko beste elementu batzuen mantentze-zerbitzuaren, kontserbazioaren eta beste lan batzuen kontratua.

Hiriko haur-parkeetarako hornidura-kontratua.

Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak programaturiko jardueretarako agertokien hornidura-kontratua.

Ziudadelako Udaberriko emankizunetarako azpiegituretarako hornidura-kontratua.

- **Jantziteriaren kontratazioari** dagokionez, zatikatze-ebidentziak behartuko luke azterlan xehaketa egitera munta txikiko kontratu desberdinen xedeei buruz eta kontratu horiek asetzen dituzten premia zehatzei buruz. Iruñeko Udalean jantzi-premia desberdinak

daude, hala nola Udaltzaingoarenak, zinegotziek eta zaindari-kidegokoek hiriaren protokolozko ospakizunetan erabilitako janzki tradizionalak, ikuskatzaileen nahiz laguntza-lan-gileen premiak eta abar. Nahiz eta egia den egokia litzatekeela, goian aipaturiko gomen-dioari jarraikiz, baterako kontratazioaren aukera baloratzea, premia-heterogeneotasunak horretarako modua ematen duen heinean, kontua da heterogeneotasun horrek berak oinarri ematen diola munta txikiko kontratazioa erabiltzeari.

- Beste hainbeste esan daiteke **sukalde-ekipamenduez**. Udalak instalazio desberdi-nak ditu, elkarrengandik bereizita dauden alorren eskumenekoak, hala nola etxebizitza-bulegoa, zaharrentzako apartamentuak eta jantoki soziala, zeinek bere-bereak diren ezaugarrak dituen ekipamenduekin. Badauka, halaber, hasiera batean aurreikusi ezinekoa den elementu-kopuru bat ere, eta horrek areagotu egiten du kontratazioaren eraginkortasuna hobetzeko azterlan xehakatu bat egin beharra, zeinak zehaztasunez finkatuko baitu, premia horietako zeintzuk ez ziren egokiro ase munta txikiko kontratu baten bidez.

- Horrez gain, aintzat hartu beharko litzateke, 24. orrialdeko zerbitzuetan agertzen diren bi alor zehatzetan, hala nola kulturarekin eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen ostatatzearekin zerikusia duten jardueretan, **premiak ezaugarritzen dituzten egoerak ezin aurreikusizkoak direla**, eta horrek eragotzi egiten duela munta txikiko proze-duren segidakotasunari dagokiona analisi zehatzik gabe aplikatzea. Izan ere, nolabaiteko maiztasunez agertu ohi diren egoerak dira, hala nola Iruñean etxerik gabeko hara-honaka-riak egotea, edo udalak antolaturiko kultur ekintza desberdinak. Aitortu egiten den maizta-sun hori gorabehera, kontuan hartu behar da egoera horietan ez direla agertzen ez beharri-zan berak, ez kontratu-xede berak, halako moldez non ezinezkoa gertatzen baita zuzenean jotzea baterako kontratazioa egitera, zeina efizienteagoa bai, baina ez baita beti posible izaten. Etxerik gabeko hara-honakarien kasuan, problema faktoreaniztun eta aurreikuse-zina da, eta bestelako irtenbideak bilatzen dira. Kultur ekintzen kasuan, azpiegituren hor-nidura, muntaketa eta kudeaketa, hein handi batean, kontratuaren xedearen beraren baitan egonen da (artista zehatza, ekitaldi-mota); hortaz, zail gertatzen da luzarorako zehaztapena egitea, horixe izaki, hain zuzen, kontratazioan zehazten dena, beharrian zehatz batzuk, denbora igaro ahala horiek alda daitezke-eta. Horregatik, jaramon egingen zaio –ezin bes-tela– kontratazio publikoaren efizientzia hobetzearen gomendioari, baterako prozedureta-rako formulak bilatuz baldin eta, betiere, hori posible bada kontratuetan jasotako xede kon-kretuek ase nahi dituzten premien arabera; horretarako, gastua egitean aintzat hartuko da kostua txikiagoa izatea, gogoan izanik ezen premia horiek ez direla beti elkarren segida-koak eta berdin-berdinak izaten.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Sinatua: Ana María Jiménez Marco, zuzenbidean lizentziatua eta Iruñeko Udaleko kontra-tazio publikoko burua.

KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA

Eskerrak ematen dizkiogu aholkularitza juridikoari, zeina Iruñeko Udaleko alkatetzaren menpekoa baita, aurkeztu dituen alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko gisa ematen baita, jotzen baita horiek egin den fiskalizazioaren esplikazio bat direla eta horren edukia aldatzen ez dutela.

Iruñean, 2025eko abenduaren 4an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

